

AITA SAN INAZIO LOYOLA-COAREN  
BIZITZA

JESUS-EN COMPAÑIACO

A. PEDRO RIBADENEIRA-C

IZCRIBATU ZUANETIC

A, -JESUITA JOSE GOENAGA TOLOSA-CO SEMEAC

ATERA TA LABURTUA,

eta OSAGARRI eder batekin,

Jesus-en Lagundi bereco A. J. I. A-c gueitu  
ta ornitua.




—  
BEAR BEZELA.

—  
TOLOSA-N

*Francisco Muguerra-ren moldeteguan*

1886-garren urtean.







AITA SAN INAZIO LOYOLACOAREN

BICITZA



## OARKERA.

—  
Bitoria-co Apaiz-nagusi D. Mariano Miguel Gomez Jaun guziz argirotarrac, eman ditu liburu onetan arretaz ta jayeraz iracurten dutenezat, *berroquei eguneco barcamenac.*



H. 69093

F. 73023

AV  
31339

AITA SAN INAZIO LOYOLA-COAREN

BIZITZA,

JESUS-EN COMPAÑIACO

A. PEDRO RIBADENEIRA-C

IZCRIBATU ZUANETIC

A.-JESUITA JOSE GOENAGA TOLOSA-CO SEMEAC

ATERA TA LABURTUA,

eta OSAGARRI eder batekin,


Jesus-en Lagundi bereco A. J. I. A-c gueitu  
ta ornitua.



—  
BEAR BEZALA.  
—

TOLOSA-N:

*Francisco Mugerza-ren moldetegian*  
1885-garren urtean.







A, JOSE GOENAGA-REN BERRI  
LABURCHO BAT.

---

**G**UIPUZCOAREN BIYOTZECO ERRI-BURU EDER  
TOLOSA deritzayonean, jayo zan JESUS-EN  
lagun Aita Jose Goenaga, eundi onen bigar-  
ren urteco Agor-illaren bostian. Cristautasun  
onean mutilchoen dembora igaroric, laſter  
ezagutu zuben, mundu gaistoaren atzapar-  
retatic igas-egiñic, JESUS-EN banderapean  
Jaungoico gure Jauna serbitzea zala beretzat  
zoriontasunic aundiena; eta ala, bere asmo  
santubac ondo icusi eta aztertu ondorean,  
Loyola-co eche santuban artu zuben JESUS-  
EN lagundi edo Compañian Aita Otsandico  
Faustino Arebalo-c, Abustuaren irugarren  
egunean, 1819 garren urtean, amazpi urte-  
co galaichoa zala. Erligio santuan probaki-  
zun eta icasikizunac bear bezela bucatuta,  
apaiz egin zanetic aurrera, bere bertute eta  
ondasun mallaric goienecoa ta bicañena azal-  
tzeco era ona izandu zuben bost-aldiz, ne-  
ke-lan eta buru-austea franco nun-nai igaro  
ta eraman bearric; batez ere guerrateco

demboran. Arazo ta eguinkizunic cristausco-  
enetan, batez ere animen salbazio lanetan,  
bizitza guzian jardun zuben Madrid-en, San-  
tander-en, Tolosa-n, Durango-n ta beste le-  
cubetan; baña batez-ere Loyolan, eta emen,  
escribuz-ere aleguñean zerbait animai la-  
guntzeco, bere zartzaroan polliki-polliki,  
euscaldunen amorez, Aita San Ignazio-ren  
bizitza laburtu an, Aita Pedro Ribadeneirac-  
luzeago izcribatu zuenetic, atera eta molda-  
tu zuben.

Bere gaiñotasunean merezimentu aundiac  
irabazirik, iruroguei urteco Aita-agurechoa  
zala, aingeru baten eran, eriotza zorione-  
coarekin, mundu oni agur eman zion Loyo-  
la-n bertan, Marchoaren 13-an 1863 garren  
urtean.

J. I. A.—J. L-c.



✻✻✻✻✻✻✻✻✻✻✻✻✻✻✻✻✻✻✻✻✻✻✻✻✻✻✻✻✻✻✻✻✻✻✻  
AITA SAN INAZIO LOYOLACO ETA JESUS-EN  
COMPAÑI-FUNDATZALLIAREN BIZITZA,  
BIRTUTE ETA MILAGROAC.

---

## I. BURUA.

*San Ignazioaren jayotza eta bizimodua,  
Jaungoicoagana biurtu zan  
arteraño.*

---

**J**ayo zan San Ignazio Loyolacoa, JESUS-EN  
Compañi-Fundadore eta Aita, etorki pres-  
tu edo nobletic, Españiaco lurrean arkitzen  
dan Guipuzcoaco Probinzian, milla ta la-  
reun eta larogueita amaicagarren urtean, Ino-  
zenzio zortzigarrena Erromaco Aita Santu  
zala, eta Españiaco Errege catolicoac Don  
Fernando eta D.<sup>a</sup> Isabel. Izandu zan bere aita  
Beltran Iañez Oñaz eta Loyolacoa, Azpeitico  
erri noblean dauden bi jatorrizco eche oen  
jaun eta jabea. Bere ama izandu zan D.<sup>a</sup> Ma-  
rina Saez de Balda, Azcoiti-co erri noblean  
arkitzen dan Balda-co echearen jabeen alaba,  
etorki eta birtutean bere senarrarekin berdi-  
ña. Zortzi anaien artean San Inazio izandu

zan gazteena, munduaren aimbeste oneraco Jaungoicoac artutaco guizona: Igaro zituan bere echean aur demboraco urteac, bialdu zuten bere gurasoac Errege Catolicoen Gortera. Baña jauregico biziera atsegiña etzan eguiten Ignazioren griña, edo genio bi-ziarentzat. Onec, eta bere anayen ejemploac zeramaten Ignazio armetara: eta ala, eman zion soldadutzari, eresi onekin bide onez irichitzeco batean guizon balientearen sona, eta armetaco argitasuna.

Laster izandu zuan onetaraco bidea. Milla eta bosteun eta ogueitabatgarren urtea zala, zeucaten Pranzasac inguraturic Iruñ edo Pamplona-co gaztelua aiñ estu, non barrenen zeuden buru edo agintariac erabaki zuten errenditzea, eta eguingo ere zuten, Inazioc galazo ezpazien; eta alaco moduan indartu zituan bere itzakin, eta bere ejemploarekin, non Pranzasac atzenic garaipena, edo bitoria irabazi bazuten ere, ongui costa zitzaien; bada gazteluan zeudenac etziran menderatu, alic-eta ezin besteraño leyatu edo peleatu, eta beren agintari Ignazio eritua icusi zuten artaraño. Orduan guztiac errenditu ziran, eta jakinic zeñ zan Ignazio, eta errukituric ecustean elbarritua, bidaldu zuten Pranzasac bere Loyolaco echera. Emen arkitzen zala, asi zitzaizcan bere zauriac antojatzen: onekin pentsatu zuten artecoac, antojatze ura zertorkiola, zerén ezurrac etzeuden beren toki-

an, eta sendatzeco gauza bearra zala, indarrez bada ere, beren tokira ecartzea: esan da eguin, alañen egin zan. Orduan agertze-ra eman zuan Ignazioc bere eramankizun, edo sufrimentua: bada aimbeste tormentu, eta oñazereren artean, egon zan zispuru bat ere eman gabe. Erremedioac egiñ arren, gaitza aurrera zijoan, eta aimbeste indar artuzuan, eze esperantza guchi zegoan bere bizitzagatic; ala bada, aditzera eman-zioten Inaziori bere gaitzurre odo peligroa.

Au adituric, egin zituan Ignazioc onelaco tranzean arkitzen diran Cristauai dagozkien lambideac; esan nai-det, artu zituan Sacramentuac San Pedro eta San Pablo apostoloen festaren besperan. Era onetan, eta etsita bezela zegoela, usteric guchienian eman-zuan gaitzac obero. Beti sinistu izandu da San Pedro Apostoloa aguertu zitzaiola, eta ecarri ziola osasuna, Apostolo aundi oni beti izandu zion debozioagatic.

Peligro artatic irten arren Ignazio, oraindic guelditu zitzaizcan igarotaco gaitzaren señalear. Bata zan belaunaren azpitic chit ichusi aguertzen zitzaion ezur bat; eta bestea zan guelditu izatea zanco bat bestea baño laburrago, artecoac egiñ ziozcaten osamen, edo erremedioacgatic. Nola Ignazio zan dembora onetan gazte galai, eta apainduri-zalea, bere burua egokiago munduan agertzeagatic, jarri zan artecoen escuetan, oec ebaki ze-

itzaioten, gañera aterea zegoan ezur ura, eta kendu, gelditu zitzaion errenera, zancoa luzatuaz erremientakin. Lambide oietan oñaze aundiac eramán bearrean izandu zan, baño guziac igaro zituan, argaltasunaren señalearic eman gabe.

## II. BURUA.

*Nola ecarri zuan Jaungoicoac bere exa-  
guerara munduco utsun edo bani-  
dadeetatic.*

**M**iragarriac dira, Jaungoicoac ascotan artu oi dituan bideac, guizonac beraganatzeco. Ara bada, zer bide artu zuan onetaraco Ignazioekin. Bearturic oean egotera, oso sendatu arteraño, oi dan bezela, egiten zitzaion dembora luzea, eta asperturic oean egoteaz, escatu zuan dembora igarotzeco, edo obeto esateco, galdutzeco, usatu oi ziran liburu munduzcoetaco bat. Jaungoicoac ala nairic, echean etzan arkitu liburu santuac baizic. Ecarri ziozcaten bi liburu, bata Jesu Cristoren bizitzacoa, eta bestea Santuen bizitzetacoa. Asi zan aietan iracurtzen, aurrenetic ez debozios, baizic dembora pasa; ondorean gozoz, eta atsegiñez: zergatic au dute gauza onac: zembat eta gueiago erabilli, eta ezagu-

tzen diran, ambat eta gueiago dira gozogoac. Iracurtzen zijoan bezela, asi zitzaion biotza bestetzen, edo mudatzen, eta iracurtzen zuana egiteco gogoan sarten. Jaungoicoac ematen ziozcan bere animan deseo onac; baiña aiñ aundia zan oitura zarren indarra, eze guztia utsian guelditzen ziran beste contraco pensamentu eta burutazioackin. Baiña nola Jaungoicoac zeucan Ignazio autatua bere soldadu izan zediñ, etzion utzitzen bere escutic: eta ala, liburu santu aiec iracurtzen zijoala, bidaltzen ziozcan, bere entendimentua ezaguera aundiagora eraman zezaketen argitasunac, era onetan sendotu zediñ bere asmo, edo propositu onatan. Infernuco etsaiac alde batetic alegiñac egiten zituan, bere mendean idukitzeco, milla gogoraziokin: beste aldetic Jaungoicoac ematen ziozcan, beraganatzeco deseoakin, barrungo deikizunac. Guerra au bere barruan igarotzen zala, oartu zan Ignazio bide onari ekiteco ascolagundu zion gauza batetzaz, eta zan; munduco pensamentuac zecartela sarrera atsegiñezcoa, baiña irteera samiña utzitzen zutela, bere anima illunduric; contrara berriz pensamentu onac, ez bacarric ematen zioten barrungo pake, eta alaitasuna, oetan zegoan bitartean, baita ere ondoren guelditzen zitzaion aietatic zerbait. Azkenic, desegiñic, infernuco etsaiac jartzen ziozcan adimentuco illuntasunac, eta argituric bere a-

nimaco beguiac, sentitu zuan beregan, benetan birtutea jarraitu, eta Jaungoicoa serbitzeco borondate sendo bat. Bertatic erabaki zuan bizitza aldatu, edo mudatzea, asitzen zala bere pecatuen penitencia egiten. Asmo au arturic, jaiki zan oetic gau batean orazioa egitera, eta bere burua Jaungoicoari oso eskeintzera, eta bere escuetan ipintzera. Belaunicaturic zegoala Ama Birjiñaren imajina baten aurrean, eskeintzen zala Amaren bitartez bere seme JESUS-I onen soldadu, eta serbitzaritzat, eche guztian aditu zan zartada bat eta icara Ignazio zegoan guelan. Señale onekin aditzera eman zuan Jaungoicoac zein bere gogozcoa izandu zan Ignazioc orduan egin zion orazio eta eskiñiera: edo benturaz, infernuco etsaiac agertu zuan bere aserrea, icusiric bere burua garaitua. Baño aurren artan etzuan beste pentsamenturic artu, ezpada, oso sendatzen zanean, penitencia gogorrez bere corputza zatitu eta castigatu, eta ondorean Jerusalem-go peregrinazioa egin.

Pentsamentu oietan zegoala Ignazio, Jaungoicoac animatu, eta alaitu zuan zeruco bisita batekin. Ara nola izandu zan. Gau batean esna zegoala bere pentsamentu santuetan agertu zitzaion bere guelan Ama Birjiña Maria Chit Santa, bere besoetan zecarrela bere Seme maite JESUS. Nola gueldituco zan bisita onekin Inazioren anima, berac ba-



carric esan zezakean. Eta eguiazcoa izandu zala agermen au, ondò aditzera eman zuten bere biotzean sortu zuan lenagoco bizimoduaren, eta baterez ere bizio lotsagarrien gorrotoac, eta une artatic eriotzaco orduraño bere animaco garbitasuna oso gordetzeco eman zitzaion graziac.

Pentsamentu eta asmo oiekiñ zebillela Ignazio, bere anai zarrenac, eta eheco beste personac igarri zioten, Jaungoicoagandic biotzean joa zegoala, eta lengo aldean besteric zala: zergatic isillic iduki arren bere artean igarotzen zana, bere arpegico aldaera, edo munduntzac aditzera ematen zuan. Guztien gañean erreparatzen zuten ehecoac dembora geiena zeramala orazioan eta liburu onac iracurtzen, eta bere izcuntza edo conbersazioa zala gauza santuen gañean, utziric alde batera esankizun farragarriac. Baita ere dembora onetan jardun zuan escribitzen bere escuz, liburu santu aietan billatzen zituan Jesucristo-ren, Maria Chit Santaren, eta beste Santuen esate eta egite seña-latuenac.



### III. BURUA.

*Nola Loyolatic irten eta joan zan  
Cataluñan arkitzen dan Ama Birjiña  
Monserate-cora.*

Sendaturic Ignazio bere gaitzetatic, pentsatu zuan, beste dembora batean Abraan-enganisa, bere echetic, eta bere aidietatic alde-gitea. Au obeto egiteco, izan zuan aitzaki bat egokia. Gaiño zegoala bidaldu izandu ziozcan aide eguiten zan Najeraco Dukeac beiñ baño gueiagotan bisitac. Une artan arkitzen zan dukea Nabarrete-n. Aditzera eman zien bada bere echecoai, berari zegokiola, dukeac aguertu zion leyaltasunari erantzutea; eta ala, egiñ bear ziola bisita bat Nabarrete-n. Iguerri zion Martin Garzia bere anai zarrenac zer asmo zituen, eta zegoan kezca aundian: eraman zuan Ignazio guela batera, eta biac bacarric zeudela, asi zitzaion esaten: Begira zezala ongui zer egitera zijoan, eta etzezala artu bera eta beretacoac galdu, eta desonratzera eraman zezakean burutazioren bat, eta onekin galdutzera, beregan jarriric zeuzcaten esperantzac.

Entzun zituan Ignazioc, anaiac esan zioz-

can gauzac, baño Jaungoicoac itzegiten zion bere biotzean indar aundiagorekin, erantzun zion itz laburrakin, etzuala egingo bere jayotzari etzegokion gauzaric, eta etzuala artuco bere echea desonratu zezakean buruzbideric. Onembesterekin despeitu zan bere anaia eta ehecoacgandic, eta artu zuan bere bidea bi morroic lagun egiten ziotela. Nola etzuan nai testiguric bere bidean, ehetic irten eta laster, agindu zien itzuli zitezela beren echera, beren nekea pagaturic. Bere ehetic irten zanetic artu zuan costum-brea gabero bere burua diziplinatzeco Ama Birjiña Monserrate-cora etorri zaneraño. Modu onetan saiatzen zan imitatzen iracurri zituan Santuen penitenzi, eta gogortasunac. Ona emen zein gogotic asi zuan Ignazioc bere bizitza berria, utziric munduco esperantzac, bere eheco erregaloac, eta ekiñic gurutzeco bideari.

#### IV. BURUA

*Nola eldu zan Monserrate-ra eta nola emen aldatu edo mudatu zituan bere soñecoac.*

**M**onserrate da, Catalonia-co mendi batean dagoan San Benito-ren erligiosoen monasterio edo bacartegua, zeñaren eleizan arkitzen da, Cristauen artean aiñ ots aundicoa dan

Ama Birjinaren imajiña bat. Lecu santu onetara etorri zan San Ignazio, eta lendabizico eguin zuan gauza izandu zan, conpesore jakintsu bat billatzea, eche artaco erligiosoen artean, gașodaguanac medicu onena billatzen duan bezela, sendatzeco. Onekiñ egin zuan bere bizitza guztico conpesio generala, empleturic onetan iru egun. Oni bere aita espirituzcoa zanez, agertu ziozcan lenengo bere asmo eta proposituac. Utzi zion bere zaldia monasterioari, eta lenago aimbeste estimatu zuan ezpata, utzi zuan zinzilica Ama Birjinaren aldarearen aurrean.

Au egiñ eta ondorean, munduco pentsamentu eta esperantzac utzi cituan bezela, ala utzi zituan gala eta apainduriac, orain esatera nuan eran. Milla eta bosteun eta ogueita bigarren urtean, eta Ama Birjiña marchocoaren bezperan, gauaren illumpean ta isiltasunean joan zan guizon pobrecho baten gana, eta eman ziozcan bere soñeco guztiac, eta bera jantzi zan alde aurretic prebenituta zecarren tunica edo sacu basto batekin. Au egiñic; igaro zuan gau ura orazioan Ama Birjinaren aurrean, batzuetan belau-nico, batzuetan zutic, escatzen ziola biotz guztitic bere laguntza, bere pecatuen damu aundiz negarrez, eta aurreraco bizitza ontzeco propositu edo asmoac egiten.

Monserate-tic jachi zan Manresa-co erri a-restian esan danera sacuaz jantziric, soca bat

guerrian, bordoya escuan, burua agirian zera-  
mala. Ozta egin zuen legua bat bide Monser-  
rate-tic, guztia pozez beteric, bere soñeco be-  
rri arekiñ, non usteric guchienean aditzen  
du deitzen diola, presaca bere ondoren zetor-  
ren guizon batec. Galdetu zion onec Inaziori  
eguiá ote zan eman-ziozcala beartsu edo pobre  
bati bere soñeco baliosoac, juramentuaren az-  
pian zionez? bada justiziac carzelan sartu  
zuala, lapurtuac izango zitualacoan. Asco nai-  
gabetu zuan guertaera onec bere biotza, eta  
negar malcoac bere begietatic zeriozcala, esan  
zuan bere artean: ¡Ay pecatari tristea! Mesede  
bat egiten ere icasi ez dezu, lagun urcoari cal-  
te eta lotsa bat ecarribage. Ala bada, culpa  
bage carzelan zegoan guizon ura libratzeaga-  
tic aitortu zuan, berac eman ziozcala soñeco  
aiec. Eta galdetu bazioten ere Ignaziori, zeñ  
zan, nondic zetorren, eta nola zeritzan etzu-  
ten ezer atera beragandic, zergatic etzan au  
jakin bearric inozentea libratzeco.

## V. BURUA.

*Manresa-n egin zuan bizimodua.*

**E**torriric Manresa-ra, bere buruari eta infer-  
nuari gerra egiten sayatzeco deseoarekin,  
joan-zan bertaco ospitalera, ango pobrea-  
kin batean bizitzera. Emen alegin guztia e-

giten zuan inore jakin etzezan bere etorkia, eta zein izandu zan lenago; munduaren begietatic escutaturic, aisago eta seguruago Jaungoicoa serbitzeagatic. Arestian esan da, nola jantzia agertu zan: baño nola izandu zan bere demboran biziro apainduri-zalea illean eta soñecoetan, arrokeri onegatic egiñ nai izandu zuan penitencia, zecarrela burua aguirian, eta illea orraztugabe, eta bere burua geiago beratu edo umillatzeagatic, utzi zituan luzatzen bizarra eta ascazalac. Demborra onetan azotatzen zuan bere burua egunean iru bder: igarotzen zituan belaunico orazio berean zazpi ordu, eta entzuten zuan meza egunero, bere animaco alaitasun aundiarekin, faltatugabe bezperetara. Egunero escatzen zuan limosna, eta bere mantenua ogui eta ur uisa, eta au ain laburra, eze Igan dez aparte, beste egun guztietan barautzen zan. Bere oya zan lur otz eta gogorra, igarotzen zuela esna gauaren gueiena. Igan deoro conpesatzen eta comulgatzen zan. Itz batean, etzion bere gorputzari guztoric ematen, egon zedin espirituaren mendean. B zimuodu onekiñ gizon sendo eta indartsua bazan ere, dembora guchi barru, guelditu zan argaldua. Eziñ ezcuta zitzaiokean alde artacogendeari Inazioren bizi-modu santu au, eta ala, guztiac zeuzcaten beragan beguiac jarri ric, eta beguien ondoren zijoakien biotza. Onegaticasco alderatzen zitzaizcan berarekiñ itze-

giteco deseoz, eta entzuten zutenean, guelditzen ziran alde batetic arrituric, eta bestetic gauza onetaraco irazekiric. Zergatic, asi-berria bazan ere espiritu eta bertuteco gauzetan, baña aiñ sutua zegoan bere anima Jaungoicoaren amorioan, eze campora aguertzen ziran bere garrac. Orregatic bere itzac zuten aim'beste indar animac Jaungoicoarentzat irabazteco. Onetaraco laguntzen zuan Jau-naren graziaz gañera, toki aietan zabaldu zan bere echeco nobleziaren berriac. Inolaz ere au jakin zan Monserrate-n isiltasun guztia-rekin egiñ arren, agertzera etorri zanetic, au da, nola bere soñeco baliosoac pobrecho bati eman ziozcan.

## VI. BURUA.

*Nola Jaungoicoac sentieraxo ziozcan  
conzienziaco escrupulo edo kezcac.*

**N**ola Jaungoicoac zeucan Inazio aukeretua, izan zediñ animaco eritasunac sendatzeco medicua; langintza au obeto egiten icasi zezan, nai izandu zuan berac igaro zitzala. Ara nola asi zan barrungo guerrac sentitzen. Beiñ batean arkitzen zala ospitaleco pobreen artean, eraso zion infernuco etsaiac pentsamentu oekin: zertan ago emen zikinkeri eta miseriaz inguratúric? Zertaco abill aiñ arlo-

te eta parragarri jantzian? Ez dec ecusten bizimodu onekiñ desonratzen decala ere echea? Ezagutu zuan Inazioc etsaiaren arte gaiztoa zala au, eta obeto garaitzeagatic, lenago ere baño gueyago batutzen zan pobreochoakiñ. Beste egun batean necaturic zegoala, eraso zion pentsamentu gogaicarri batec, esaten bazion bezela. Nola iraun dezakec bizimodu necoso onetan oraindic guelitzen zaizkican iruroguei ta amar urteetan? Ignazioc erantzun zion orduan: Ori esaten diran orrec, emanekec ordubeteco bizitzaren segurantzatic? Etzeudek Jaungoicoaren escuetan gure bizitzaco egun eta ordu guztiac? eta irurogeita amar urte penitenzian igaro arren, cer icusi ditec betiraunde edo eternidadearen aldean? Jaungoicoari eskerac, etsaiaren erasoera oetan garaile irten zan.

Baño etzan onekin bucatu barrungo pelea. Onen ondoren sentitu zuan bere barruan tormentu berri bat. Bere anima garbiago guertu zediñ, laga zuan Jaungoicoac sentitu zitzala conzienziaco escrupulo edo larritasunac, conpesio generala arreta, eta cuidado aundiarekin egin bazuen ere: confesatu ote nuan onelaco gauza: azaldu ote nuan bear bezela beste bat: aitortu ote nituan onelaco zircunstanziac. Pentsamentu oekiñ aiñ larritua zebillen ece, etzuan arkitzen ez orazioan atsedan edo descantsuric, ez peniten-



zian gozaera, eta erremedioric. Barrungo  
 lluntasun da tristura onetan zegoanean,  
 etzuan beste alibioric, aldareco Sacramentu  
 santua artzea baizic. Baño, aldi batzuetan,  
 guchiric ustienean, Jauna artzeracoan, ema-  
 ten zion conziencico larri batec, eta onen in-  
 darrac aterazotzen zaan, belaunicaturic ze-  
 goan tokitic. Orduan negarrari emanic, er-  
 regutzen zion arren bere escutic iduki ze-  
 zala estuasun artan.

Dembora onetan aldatu zan ospitaletic  
 Santo Domingo-co comentura Manresa-n ber-  
 tan, nun artu zuten ango erligiosoac cari-  
 dade aundiarekin. Emen zegoala, gogoratu  
 zitzaion iracurri izana, nola Santu batec era-  
 baki zuan barauan egotea, alic eta Jaungoi-  
 coagandic irichi zezan bitartean, escatzen  
 ziona. Asmo onekin bada gorde zuan Igna-  
 zioc baraua zazpi egun osoan, ezerchore  
 jangabe: igarotzen zituala orazioan zazpi  
 ordu belaunico, eta egiten zituala peniten-  
 zia gogorrac: eta arritzecoa dana da, era  
 onetan igarotaco zazpi egunen buruan sen-  
 titzea bere corputza lengo indarrakiñ. Au-  
 guertatu zan Igande batetic bestera, zeñean  
 contu emanic bere conpesoriari, oi zuan be-  
 zela, aste artan bere animan pasatu zan  
 guztia; onec agindu zion jan zezala, eta  
 andican aurrera Jaungoicoaren misericordian  
 bere ustea ta confianza ipiñiric, barcatu  
 ziozcalacoan bere pecatuak, pakean egon ze-

dilla. Inazioc egin zuan conpesorearen esana, eta Jaungoicoac biurtu zion bere barrungo pakea. Onekin icasi zuan conzienziaco larri edo escrupuloa sendatzeco, guero izan zuan jakinduri miragarri ura.

## VII. BURUA.

*Nola Jaungoicoac eman zioxcan animaco contentu aundiac tentaxioen ondoren.*

Quando irten bazan ere Ignazio arestian esan diran estutasun eta larritasunetan, eta orañ arkitzen bazan ere biotzeco pakean, etzan orregatic zabartu Jaungoicoa serbitzen, eta birtuteari jarraitzen. Eta nola Jaungoicoa dan aiñ emallea, ez du utzitzen sarigabe beraren serbizioan egiten dan lambide chikienic-ere. Ala bada, pagatu zion chit ugari Ignaziori, onec agertu zion leialtasuna aimbeste estuasun, eta naigaberen artean, emanic barrungo contentamentu aundiac, eta indarturic bere borondatea, gauza on guztietaraco. Dembora onetan egin zion Jaungoicoac beste mesede aundi bat. Nola Inazioc zion debozio aundia Trinitade edo Iru-batasun guztiz santuari, arkitzen zala egun batean Santo Domingo-co elizan, agertzera

eman zitzaion bere animan misterio altu ura aiñ arguitasun aundiarekiñ eze, iracurtzen eta escribitzen besteric ez jakiñic, escribitu zuan chit egoki liburu bat, misterio onen gañean. Etziran onetan bucatu Jaungoicoac dembora onetan egiñ ziozcan erregaloac. Beiñ batean aditzera eman zion, zer modutan mundua ezerezetic atera zuan: beste batean meza entzuten zegoala, arestian esan dan comentuco elizan, ecusi zuan arguiro animaco beguia-kiñ Ostia alchatzean, nola oguiaren irudipean zegoan Jesucristo. Era onetan ere iñoiz edo berriz agertu zitzaion bere Ama Maria chit Santa. Beste batean, artean Manresa-n zegoala, Larunbat batean guelditu zan cordegabetu edo arrobaturic, eta era onetan egon zan urrengo Larumbateraño, zeñean lo gozo batetic esnatzen bazan bezela, beregandu zan, eta idiki zituan beguiac esanáz amorioz ¡Ai JESUS! Icustamen edo bisita onelacoakin aiñ arguitua gueratzen zan bere anima eze, benetan zeritzaion bestegabe sinistuco zituala fedeco misterio guztiac, eta bear balitz išurico zukeala bere odola oiegatic. Jaungoicoac zeucan Inazio aututua gauza aundietaraco, nola zan, JESUS-EN Compañiaren Fundadorea izateco; eta orregatic aldeaurretic argitu zuan bere adimentua zeruco arguitasunakin, eta aberastu zuan bere anima graziazco ondasunakin.

## VIII. BURUA.

*Nola izcribitu zuan dembora onetan  
ejerzizio edo jarduntza izpirituz-  
coen liburua.*

**D**embora onetan, iracurtzen eta izcribitzen besteric etzekiela, escribatu zuan Ejerzizioetaco liburua. Chikia izan arren, ecarri diozca probechu aundiac Elizari. Esan diteke Jaungoicoaz osterontzian, liburu oni zor zaiola JESUSEN Compañia mundura etortzea: bada onen bitartez Jaungoicoac eman ziozcan Ignaziori, Compañia fundatzeco lendabizico lagunac, eta oen ondoren Jaunac ecarri ditu beste asco eta asco Compañiara liburu onetaco eginkizunen bitartez. Baño, ez bacarric JESUS-EN Compañiaren probechuraco izanda liburu au, baita ere beste erligioetaraco, zeñetara deitu izan ditu asco liburu onen bitartez. Liburu onen bidez Jaungoicoac alchatu izan ditu santutasunera persona asco jenero guztietatic. Au icusiric, Aita Santu Paulo irugarrenac, ontzat eman zuan liburu au, alabatzen zuala, eta Cristau guztiai, ejerzizioac egiñ zitzaten, conseju ematen zielala.

## IX. BURUA.

*Nola joan zan bidago edo Peregrinaxioan Jerusalem-era.*

Urte bete bezela igaro zuan Inazioc Manresa-n, esan degun bizimodu gogorrean. Alderatu zanean Jerusalem-a joateco señalaturic zeucan dembora, irten zuan Manresa-tic, eta artu zuan Barzelona-co bidea, Jaungoicoa baccaric bideco lagun zuala. Barzelona-n zegoala, Jaungoicoac aditzera eman zuan señalebaten bitartez Ignazioren santutasuna. Ara nola guertatu zan. Señora bat, Isabel Rosell zeritzaiona, zegoan egun batean sermoia aditzen: eta dembora berean, zegoala sermoiura bera aditzen Santua, aldareco malletan umeen artean eseriric, zeritzaion andre arri Inazioren arpegiac distiatzen zuala. Dembora eldu zanean embarcatu zan Barzelonan, eta ichas-bidaje au izandu zan necosoa egualdi charragatic, eta bost egunen buruan lur artu zuten Gaeta deritzaion Italiaco erri edo zitude batean. Legorrean ere etzitzaion faltatu, zer sufritu; zergatic, nola peste edo izurria zabaldua zegoan Italian, erriac zeuzcaten guardiac etzien utzitzen campotarrai sartzen. Inazio arkitu zan zer jan etzuala, eta plakiaz pausoric ezin eman zezaken esta-

duan. Atzenic, eldu-zan Erroma-ra, eta emen arturic Aita Santuaren bedeincazioa, eta bisitaturic debozio aundiarekin erri santu artaco Elizac, artu zuan Jerusalem-go bidea, pasatzen zala Benezia-tic. Emen embarcatu zan berriz, eta atzenean lur artu zuan Jerusalem aldeco caya batean.

## X. BURUA.

*Nola bisitatu zituan Jerusalem-go toki Santuac.*

**I**rten zan ichasoz Benezia-tic milla ta bost-eun eta ogueita irugarren urtean, uztaillaren amalauan, eta eldu zan Jafa-ra Abustuaren atzeneco egunean, eta Agorraren lauan sartu zan Jerusalem-en. Ez da erraz azaltzea, Jaungoicoac bere animari eman ziozcan contentu eta atsegiñac erri Santu arren icusmenarekin eta ondorengo egunetan egiñ ciozcan erregaloac, toki Santu aec bisitatzen ibilli zanean.

Artu zuan Jerusalem-en guelditzeco asmoa, eta bere egunac empleatzeco Jesucristoc bere pauso eta presenziarequin santutu zituan toki aec bisitatzen, baita ere lagun urcoa serbitzen. Baño, bere borondatez angeldituco bazan ere, Jaungoicoarena eguitegatic, itzuli zan Europa-ra.

## XI. BURUA.

*Nola etorri zan España-ra.*

---

**J**aungoicoaren borondatea etzala jakin zu-  
anean Ignazioc, Jerusalem-en guelditu zediñ;  
bidean jarri zan atzera itzultzeco. Bide o-  
netan eramankizun aundiac izandu zituan,  
negua zalaco, eta arropa pobr z zegoalaco.  
Bidaje onetan ere agertu zuan Jaungoicoac  
bere aitazco Probidenzia Ignaziorekin. Jeru-  
salen-dic bueltan, etorri zan Chipre deritza-  
ion isla edo ugartera. Emen arkitu zituan Ita-  
li aldera zijoazen iru ontzi. Bata zan Turcoe-  
na: bigarrena ontzi aundi eta sendoa zan Be-  
neziacoe-na, irugarrena zan ontzi ch ki eta zar  
bat. Pobreza zalaco eramam nai izandu etzuten,  
aurrenaco bi ontzi aetan, eta artu zuan bo-  
rondate onez ontzi zar arren Capitanac. Irten  
ziran irurac cayatic egun batean eta ordu ba-  
tean, egualdi onarekin. Baña laister eraso  
zien ecaiz edo tempestade gogor batec, zeñean  
galdu ziran bi ontzi sendoenac eta salbatu zan  
Ignazio zeraman ontzi chiki eta zarra.

## XII. BURUA.

### *Nola asi zan estudiantzen latinezco Gramatica.*

**I**tzuli zan Inazio Italia-tic España-ra, gogoz estudioac asitzeco asmoarekin: zergatic ezagutu zuan, lagun urcoari laguntzeco premiazcoa zala jakinduria, eta Jaungoicozco gauzen ezaguera. Milla eta bosteun ta oguei ta laugarren urtean, oguei eta amairu urte zituala, eman zion asiera Barzelona-n Gramatica latinezaren estudioari. Lan gogaicarria bazan ere Inazioarentzat, adiñ edo edade artan jardutea umean estudio aetan, orrez guztiaz ere, gogoz eramán zuan Jaungoicoaren onragatic, eta lagun projimoaren probechuagatic.

Infernuac egin zituan alegiñac, galerazitzeco aimbeste on ecarri bear zituzten estudioac, ecartzen ziozcala estudioco garaian barrungo arguitasun edo consueloac, modu onetan arreta edo cuidadoric jarri etzezan icasten. Baña alferric izandu ziran guztiac: bada Ignazioc ezagutu zituan arte gaisto oec eta ala, gogoz jarraitu zuan bere estudioetan. Bi urte egin zituan Barzelona-n, eta dembora onetan aimbeste aurreratu zuan Gramatican,



eze esamiñatu zuten bere maisu eta beste guizon jakintsuac esan zioen, asi zezakeala Filosofia.

### XIII. BURUA

*Nola joan zan Alcalara Filosofia icasteco asmoarekin, eta emen izan zituan eramakizunac.*

**E**ldu zanean Ignazio Alcalara; joan zan zubenear ospitalera; emendic irten zan mantentzeco bear zuan limosna escatzera. Emendic aldatu zan beste gaišotegi eguiñ berri batera, zeñean caridadez eman zioten guela bat. Dembora onetan asi zan Filosofia icasten: baño utzigabe deboziozco, eta animen salbazioco eta misericordiazco obra onac. Onetaraco ibilltzen zan limosnac biltzen pobreenztat, eta ejerzizio eta orazioaren bidez eramaten zituan asco birtutera. Onez gañera jardutzen zuan aurrai eta jende jakiñez edo ignorantiai dotriña eracusten. Lambide oekin ziudade artan ecusi zan mudantza aundia.

Baño Inazioren arazo oec miñ ematen zioten infernuari, eta ala agertzera eman zuan zion gorrotoa. Ara nola gertatu zan. Dembora onetan zituan Ignazioc iru lagun, zein-

tsuac, icusiric bere ejemplo onac, juntatu zitzaizcan, beraren antzera bizitzeco asmoarekin. Ala Ignazio, nola bere lagunac zebiltzan jantziac lanazco tunica lacatzakiñ. Oidan bezela, gendearen artean modu ascotara itzegiten zan gauz onen gañean; bazuac ontzat ematen zutela, besteai ongui iruditzen etzitzaiotela.

Jakin zuten Toledo-co Inkisidoreac zer pasatzen zan Alcalan, zeñac, dembora peligrozcoac ziralaco aec, etorri ziran Alcalara, ecuzteco guizon aien bizitzan edo eracusten zuten dotriñan, ote zan gauza okerric. Baña ongui esamiñatuta gero, etzuten arkitu tacharic ez batean, eta ez bestean, eta ala, jarraitu zuten beren obra onetan.

Artean Alcalan zegoala, guertatu zitzaion beste neke, eta humillazio bat, bere culpa gabe. Ara zer izandu zan. Bere dotriña eta conseju onaz, aprobechatzen ziran personen artean, izandu ziran bi, ama-alabac. Oec beren debozioz artu zuten erromeri urrutico bat egiteco asmoa. Baño aurrena jakin nai izandu zuten Ignazioren iritzia gai onetan; eta onec esan zien etzitzaiola ongui iricten erromeri ura. Orrez guztiaz ere, Ignazioren esanai casoric egiñ gabe, jarri ziran bidean erromeri artaco. Guertaera artan inozente bazegoan ere Ignazio, mundu guztiac ekin zion beraren contra gaizki esaca, sinisturic bere consejuz jarri zirala biaje artan. Egun bate-

an usteric guchienean, etorri zitzaion Bicarioraren amabiya eta esan zion zetorrela berekiñ, eta Ignazioc obedezitu zion pake aundian, carzelan preso gueldituric. Carzelan egon arren, etzan alferric egoten: zergatic era zualaco, jarduten zuan doctriña eta Jaungoicoaren gauzac eracusten, berarengana joaten ziran gende ascori.

Jakin zuten persona batzuec zer pasatzen zan, eta jakiñic inozente zegoala carzelan, eskeñi zioten beren laguntza, carzelatic aterra zezaten. Baño Ignazioc, nola zeucan bere ustea edo confianza bere inozenzian, eta onez gañera, nai zuan Jesus-en gatic neke ura eta gueyago eraman, etzuan nai izandu persona aec itzeguin zezaten bere alde; ezda ere baliatu nai izandu zuan letraduaz, bere alde arpegui eman zezan, sinisturik bere inozenziac etzuala defensa bearric.

Amazazpi egun ziran Ignazio carzelan zegoala, eta arteraño etzekien zergatic ceucaten preso. Onetan etorri zitzaion bisitatzera Bicariora, eta asi zitzaion galde asco eguiten, eta oyen artean berriric ote zuan emacume bi ama alabenic? Bayetz esan zion Ignazioc. Orduan galdetu zion Bicariorac, emacume ayeri eman ote zion conseju, Erromeri ura eguiñ zezaten ¿edo ote zekian noiz eguiñ bear zuten? Eta Ignazioc erantzun zion: Etziela arrec eman orrelaco consejuric:

contrara aleguiñ eguin zuala kentzeco burutic asmo ura. Bada «jakin bear dezu, esan zion, conseju ori eman ziezulaco arkitzen zerala preso, eta ez da izandu beste motiboric». Au bera aguertu zuten emacume aec beren declarazioetan: eta ala, Juezac eman zuan bere inozenziaren erabakia eta utzi zuan libre. Alcalá-ticaldatu zan Salamanca-ra, eta emen guertatu zitzaion an guertatu zitzaiona bera. Projimoai on eguiteagatic asi zan oei gauza onac eracusten, muguitu zitezzen Jaungoicoaren beldurtasun eta amoriora. Arkitzen zan Ignazio conbentu batean, eta ecusiric ango erreligiosoac, gendea zeterrela bera aditzera, parte eman zioten Obispoaren Probisoreari. Onec dembora aec peligrozcoac ziralaco, paratu zuan Ignazio preso eta catean lotua. Era onetan zegoala, etorri zan beste ascoren artean bisitatzera eta aditzera Don Francisco Mendoza-coa, guero Burgosco Obispo eta Cardenal ill zana. Emen aguertu zuan Ignazioc Jesusen amorioz nekeac eramateco zeucan gogoia. Errukituric arestian esan dan Don Francisco, icustean Ignazio era artan; galdetu zion ematen otezion naigaberic estadu arrec. Eta Santuac erantzun zion: Salamanca-co cateac ez ezic, gueiago ere, pozic eramango zituzkiela, Jaungoicoaren amorioagatic. Atzenian Jaungoicoac aguertu zuan bere inozenzia, eta Juezac utzi zuten libre. Ara nola. Alde batetic on-

do esamiñaturic lau juezec, bere descarguraco, aurkestu zuan ejerzizioetaco liburua; etzuten arkitu doctriña charric: ezta ere berari galdetutaco gauzen gañean eman zituan errespuestetan, arkitu zuten doctrina okerric.

## XIV. BURUA.

*Nola joan zan icastera Paris-co  
Unibersidadera.*

**E**studioetan asi zanetic, zebillen beti pentzatzan, oec bucatzean, zer bizi-modu artu bear ote zuan, Jaungoicoa obeto serbitzeco. Bi bide ziran, gueiena gogoan zeuzcanac; edo Erligioen batean sartzea: edo lagunen batzuec bilduric, projimoen onari beguiratzea. Atzenean gauza ongui pentsaturic, erabaki zuan bigarren bidea jarraitzea. Au eguiteco artu zuan asmoa Paris-co Unibersidadera jutea, noraco zuzentzen zituan Jaungoicoac bere pausoac. Utziric bada Salamanca, artu zuan Paris-eraco bidea Barzelona-tic pasatzen zala.

Barzelonan zegoala, contu eman zien bere ezagun eta adiskideai, nola artu zuan Paris-era joateco asmoa. Oec aleguin guztia eguin zuten pentsamentu ura burutic kentzeco, esaten ziotela etzala ura dembera egokia

biaje ura eguiteco; batetic neguaren biotza zalaco; bestetic une artan España eta Franzia-  
ren artean guerra zegoalaco. Baño guztia al-  
ferric izandu zan, zeren Jaungoicoac zuzen-  
tzen zituan bere pausoac. Eta ala, guerra  
demboraco arriscoen artean, artu zuan Fran-  
zia-ronz bidea oñez; eta eldu zan atzenean  
ondo Paris-era Otsailla asi-berrian milia eta-  
bosteun eta ogueita zortzigarren urtean.

## XV. BURUA.

*Estudioetaco demboran Parisen Ignaxioc  
igaro zituan nekeac eta aetatic  
atera zituan frutuac.*

**I**richiric Paris-a, asi zan contuac ateratzen,  
nolaco hizimodua artu bear zuan, benetan  
estudioac jarraitzeco, eta bere beartasun,  
edo pobrezac obligatu etzezan aiei eman bear  
zion dembora kentzera. Baño etzitzazcan  
gauzac irten berac nai zuan bezela; zeren,  
estudioetaco demboran premia aundian ecusi  
zuan bere burua. Ara zer guertatu zitzaion.  
España-tic bialdu zioten dirutan limosna bat,  
eta eman zion gorde zezan, berekin bizi zan  
lagun Españiar bati; baño au etzan izandu  
leyala, zeren gastatu zuan guztia, gogoac  
eman zion bezela, eta ondorean etzuan zere-

kiñ pagatu. Onekiñ guelditu zan Ignazio aiñ pobre, eze Santiago-co ospitala zeritzaionera, bizitzera joan bearrean arkitu zan. Emen dic irteten zan atez-ate limosnac biltzera mantentzeco. Baña nola bizimodu au estorbu aundia zan bere estudioac bear bezela eguiteco, pentzatu zuan serbitzen jartzea nagusi batekiñ, era gueyago izan zezan estudioetaraco; baño, aleguiñ guztiaceguiñ bazituan ere onetaraco, etzuan arkitu onelaco nagusiric. Eta ala, bere adiskide on baten consejuz artu zuan bere icasteetan jarraitzeco beste bide bat, obeto guertatu zitzaiona. Joaten zan urteoro Paris-tic Flandes-a, eta Brujas eta Amberes-co erriandietan arkitzen ziran mercatari Españiar aberatsen artean biltzen zuan, urtea igarotzeco pobrecho bada ere, bear zuan limosna, zeñarekiñ itzultzen zan Paris-a. Au eguin zuan iru urtetan, eta irugarrenean igaro zan gañera limosna billa Londres-a iru urteren buruan. Flandes-co mercatariac, ezaguturic Ignazioren bertutea, berac bialtzen zioten Paris-a urteoro limosna: onekin etzuan joan eta etortzen ibilli bearri. Onez gañera Españiatic ere bialtzen ziozcaten limosnac. Era onetan igaro zituan Ignazioc bere estudiuac Paris-en. Deabruac eguiñ zituan aleguiñ guztiac galerazitzeco icasikizun aec, beste dembora batean Gramatica galerazitzeco, Barzelona-n eguiñ zituan eran bertan, au da, animara contentu

eta gozamenac eracarriaz. Baña Ignazioc es-carmentatu eta ongui icasia bezela, ayenatu zituan beragandic pentsamentu engañagarri aec. Arestian esan diran nekeaz gañera, izan zituan gaitzac, zeñnac eracarri ziozcaten bere buruari penitenziakin ematen zion tratu gogorrac estudioetan jartzen zuan ardurac eta Parisco aizeac: eta aimbesterañoco indarra artu zuten gaitz oec, eze bizia ez galtze-co, icasteac aldi bateco utzi bearrean arkitu zan. Neke oekiñ guztiakiñ ere ongui atera zan, bere estudioetan. Acabatu zuanean Paris-en Filosofia, ondorean estudiatu zuan anbertan Teologia eta Jaungoicoaren laguntzarekin chit ongui irten zan onetan ere.

## XVI. BURUA.

*Nola izandu zan perseguitua caridaxco eguinkizunetan ibilltzeagatic.*

**N**ola Ignazioren biotza zegoan sutua Jaungoicoaren amorioan, eta projimoen animen probechuaren eresi edo deseotan, ezin egon zitekean ezer eguin gabe gai onetan: eta obra onen pagua izandu zan bere contra alchatu zan jazarri ta persecuzioa. Bere ejemplo eta conseju onakin alaco moduz muguitu zituan Jesu Cristoren imitaziora Paris-en estudiat-



zen zeuden batzuec, eze, zuten guztia pobre-  
en artean zabalduric, berac asi ziran, eske-  
an biltzen zutenarekin bizitzen, eta aldatu  
ziran ospital batera, pobreen artean bizit-  
zera. Oi-dan bezela zabaldu zan estudianteen  
artean guertaera onen berria, eta etzan bes-  
te gauzaz jarduten: batzuec ontzat ematen  
zutela eta besteai etzitzaien ongui iruditzen.  
Gueiena asaldatu edo alborotatu ziranac  
guertaera onegatic, izandu ziran zaldun edo  
caballero español bizimodu berria artu zu-  
tenen aide eta adiskide batzuec, eta eguiñ  
zuten aleguiñic asco, utzi zezaten bizimodu  
ura, ez bacarric erreguackiñ eta itz onakiñ,  
baitaere amenazakiñ. Baño au guztia asco  
etzala icusiric, berenarekiñ irteteco, indarrez  
atera zituen ospitaletic.

Nola gauza jakiña zan Ignazio zala, estu-  
diante aec artu zuten bizimodu arren eragui-  
llea, orregatic ekiñ zioten berari, salaturic  
bi alditaraño Inkisidoreari, baña bietan on-  
gui irten zan, eta tacha gabe bere eracus-  
gaiean.

## XVII. BURUA.

*Nola Paris-en bildu zitzaizcan lagunac.*

**E**studioetan asi zanetic, izandu zuan Igna-  
zioc deseoa lagunac batutzeco, bera bezela

animen onean jardun zezaten. Ignazioc Filosofia asi zuan garaian, bizi ziran Santa Bárbara zeritzaion Colegioan, Pedro Fabro Saboiarra, eta Francisco Jabier Naparra. Nola Jaungoicoac zeuzcan erabakiric oec bioc, izan zitezen Ignazioren espirituco pausuen jarraitzalleac, ara nola gauzac zuzendu zituan. Esanda lenago nola Ignazio bizi zan ospital batean. Arestian esan diran biac artu zuten beren artean Ignazio, eta onec irabazi zituan Jaungoicoarentzat bere ejemplo eta conseju onakin eta batezere ejerzizio santuac eraguiñarekin. Dembora onetan etorri zan Alcalatic Paris-a, Diego Lainez, Almanzan-goia Teologia icastecoasmoarekiñ, eta Ignazio ezagutzeco deseoarekin, zeñaren santutasun, eta penitencia aundiaz itzeguiten zan Alcalan. Jaungoicoac ala naiez, Lainez-ec Paris-co sarreran aurreneco billatu zuena izandu zan Ignazio, eta andican laister eguiñ ziran adiskide. Lainez-ekiñ batera etorri zan Alcalatic Alonso Salmeron, Toledocoa: biac ziran estudioac ongui eguiñ zituenac. Oei guztiai eman ziezten ejerzizioac Ignazioc, eta bertatic erabaki zuten onen pausoac jarraitzea. Oen ondoren bildu zitzaizcan Simon Rodriguez, Portuguesa, eta Nicolas Bobadilla, Palenzia aldecoa.

Ignazio eta bere sei lagun esan diran oec, bucaturic Filosofia, eta Teologia, milla ta bosteun, eta ogueita amalaugarren urtean

Ama Birgiñaren Asunzioco egunean joan ziran Martirien mendia esaten dan Maria Chit Santaren Eleizara, Parištic legua bat hibe orduan. Emen confesatu eta comulgatu ondorean, eguiñ zuten promesa, utzitzeco zuten guztia, berac señalatu zuten egun bateraco, Beneziaco biajeraco bear zuten gasturacoaz campora. Onez gañera, eguiñ zituzten beste bi promesa: bata zan jardutea edo empleatzea lagun urcoaren probechu espiritualean: bestea zan joatea peregrinazioan Jerusalem-a, condizio onekiñ; elduric Benezia-ra emen urte bete barruan izaten bazan Jerusalem-a ichasoz joateco eraric, joatea ara, eta an bizitza igarotzea: baño eziñ bazitekean urte bete barruan, edo joan da guero eziñ guelditu bazitezkean Jerusalem-en; itzulico zirala Erroma-ra; auzpezturic Aífa Santuaren oñetan, eskeñico zirala berari, jardurazi edo lambidetu zitzan animen oneraco, zerizkion eran. Eta promesa au bera berritu zuten, ondorengo bi urteetan egun artan berean, eta Eliz artan, eta esan diran zereconiakin. Bi urte oetan bildu zitzaizcan beste iru lagun, zeñac ziran Claudio Jayo Saboya-coa, Juan Coduri, eta Pascasio Broet Franzi-coa; eta ala, amar ziran guztiac nazio diferenteetacoac baziran ere, baño danac berdiñac borondatean. Eta guchitu etzedin estudioackin bere biotzeco eta animaco debozia, Ignazioc encargatzen zien egune-

roco Jaungoicozco gauzen meditazioa, eta sarritango confesio eta Comunioa, zeña guztia leyalki gordetzen zuten. Bizimodu onekiñ guero eta gueiago joan ziran aurreratzten Jaungoicoa serbitzeco deseo aundietan.

## XVIII. BURUA.

*Nola etorri zan Paris-tic España-ra eta emendic biurtu Italia-ra.*

**D**embora onetan zebillen Ignazio osasuna aiñ guñsirekiñ, eze medicuac etzuten billatzen beste sendagarri edo erremedioric, bere jaio-lecuco aizeac artzea baizic; eta ala, medicuen esanagatic, eta bere lagunen erre-guacgatic, itzuli zan España-ra. Eta nola Ignazio bere osasunagatic bacarric etzan erraz biaje au eguiten jarrico, Jaungoicoac alaco moduan eratu zituan gauzac, eze Ignazio arkitu zan beartua, oraiñ esatera nuan motiboagatic. Bere lagunetaco batzuec zituzten Españian beargai batzuec arreglatu bear-rac, eta ala, conbeni zan onetaraco Ignazio Españiara etortzea. Igarotzen zala milla eta bosteun eta oguei eta amabost garren urtea, erabaki zuten beren artean Ignazio etorri zedilla España-ra, eta bere jaiotokian sendaturic, zuzendu zitzala Españian, Paris en utzitzen zituan lagunen lambideac.

Irten zan bada Ignazio Paris-tic España-alderra abere batean; zerren etzioten laguntzen indarrac oñez ibilltzeco. Eldu zan bere jayoterrira, Paris-tic irten zanean baño sendoa-go. Bere errico apaizac izan zuten alde aurretic berria, nola zetorren, eta ala, irten zitzaizcan bidera, baño bere umiltasun eta pobretasunaren amoreagatic, etzuan nai izandū bizi bere anayaren eche aberatsean, baizic pobreen ospitalean. Emendic irteten zan mantentzeco bear zuan limosna atez-ate biltzera, bere anay zarrenaren borondatearen contra, zeñac eguiten zuen aleguiña eragosteco. Artu zuan Ignazioc asmoa, aurrai dotriña eracusteco; eta au burutic kentzeco esaten zion bere anayac, guchi etorrico zitzaizcala aditzera; eta erantzun zion Ignazioc, «aur bat bacarra etortzen bazat aditzera, contentu izango naiz» Ala bada, münduaren esanai casoric eguin gabe, asi zan dotriña azaltzen edo esplicatzen; eta egun guchi barruan bere anaya bera beste ascorekin etortzen zan entzutera. Baño Domeca edo Igandeetan eta aste bitarteco jaietan predicatzen zituan sermoietara probechu aundiarekin aiñ gende aundia etortzen zan aditzera erri ascotatic, eze ezin cabituric gendea Elizetan, campoan predicatu bearrean arkitzen zan.

Lendabizi predicatu zuanean Azpeitian gende azcoren aurrean, esan zuan bere burua humillatzeko gauza bat. Predicatzen ze-

goalá, aitortu zuan: bere errira eracarrí zuten gauzetatic bat izandu zala, beste dembora batean guertatu zitzaion guza baten satisfazioa ematea pulpitu artatic, eta onekin bere conzienziari pakea ematea. Ara nola izandu zan gauza. Mutill gaztea zala, sartu zan bere lagun batzuekiñ besteren lurrean, eta andik eraman zituzten fruta batzuek: lurra- ren jabeak gaizkieguintzallea zeintzan etzekien bidez, eraguiñazo zuen preso sospecha guezurtiaz beste gabe, guizon beartsu bat; eruki zuan preso luzaroíño, eta guztien gañera guelditu zan guizon ura deshonoratua eta bere ondasunetan calteztua: guizon au bera arkitzen zan sermoian; eta Ignazioc bere izenez otseguiniñic, gende guztiaren aurrean escatu zion barcazio, esanic gañera: bera izandu zala gaiztoa, eta guizon ura inozentea: eta bide-onez nai zuala biurtu guztien aurrean bere izen onaren caltea, eta justiziac condenatu zualaco bost edo sei ducat pagatzera, eguiten ziola errestituzioa, emanarekiñ beretzat aien aldera guztien aurrean, zituan bi soró.

Ignazio bere errian egon zan bitartean, Jaungoicoac atera zituan frutu aundiac, kenduric pecatu eta escandaloac. Utzi zizten Ignazioc ordena egokiac, ala errico pake eta gobernu oneraco, nola erlijioco gauzen aurrerapeneraco. Eguin zuan aleguiñ guztia,

eman zitezen legue estuac jocua eta bizio lotsagarriac erbestutzeco.

Osasuna, eta indarrakin sentitu zanean, erabaki zuan bere erritic irten, eta bidean jartzea, lagunen lambideai cobru emateco. Baña ñola artu zuan asmoa biajea oñez eguiteco eta bideraco ezer artugabe, emendic sortu zan anaya bien artean leya edo disputa. Nola bere anayac etzuan ongui eramam lenago, bere echea utziric, pobreen artean ospitalean bizitzera joatea, eta limosna eske echez-eche ibiltzea; nai izandu zuan iriñsi orduan bere usteetan galdu zuan honra, eta ala, erregutu zion bere anay Ignaziori al zuan aleguiñakin, joan zedilla aberez, eta eramam zezala laguna, eta bideco gasturaco dirua. Pakea-gatic bada, eta contentu utzitzeagatic anaya, artu zuan onec escaintzen ziona: baño au izandu zan piñca bateraco; bada Guipuzcoaco Probinzitic irten zan bezin laister, utzi zituan lagunac, eta aberea; eta bacarric oñez eta dirugabe, limosna escatzen zuala joan zan Iruñ edo Pamplona-ra. Emendic joan zan Almansa, Sigüenza eta Toledo-ra; zergatic toki oetan arreglatu bear zituan, bere lagunac encargatu ciozcaten lambideac. Bucaturic bada eguin-bear guztiac, eta ezer artugabe bere lagunen gurasoetatic, escañi arren oec diru, eta beste gauzac, artu zuan Balenzia-raco bidea: emon ontziratu edo embarcatu zan, bere adiskidien conse-

juen contra, zeñac aditzera eman zioten zer arriscutan sartzen zan; ichaso aietan zebillelaco Barbarroja zeritzaion Turco ichaslapurra, eta Jaungoicoac gorde bazuen ere onen atzaparretan erortzetic, etzan libratu ichaso-ecaitz aundi baten neke eta arriscoetatic. Arriscoa igaroric, eldu zan Genoba-ra, eta emendic joan zan Bolonia-couri edo ziudadera. Emen gaisotu zan biajeco neke eta tratu charrarekin, baño laister sendatu zan, eta andican igaro zan Benezia-ra zeñera biribillatu bear ciran, Paris-en utzi zituan lagunac.

## XIX. BURUA.

*Nola izandu zan salatu edo acusatua Benexian eta arguitu zan bere inozenzia edo errueza.*

**E**tzan egon alperric Ignazio Benexian, bere lagunen zai egon zan bitartean: zeren, oizuan bezela, jardun edo ocupatu zan bere lagun urcoen próbechuan bertutean aurreratzen zituala. Oen artean izandu ziran bi anai Naparrac guizon prestu eta edadean aurreratua. Esteban eta Diego Eguia-coa zeritzatenac, zeñac itzultzen zirala Jesusalen-go Erromeritic billatu ziran Venezia-n



Ignaziorekin, zeñarekin izan zuten lenagotic tratamentua Alcalá-n, eta guero sartu ziran JESUS-EN COMPAÑIAN. Baita ere eman ziezten ejerzizioac Benezia-co Gobernuco zaldun edo caballero batzuei, laguntzen zielela bere conseju onakin oneco-bidean aurreratzen. Baño izandu ziran beste batzuec zeñac, edo zala embidiaz edo gaizki informatuac zendelaco, zabaldu zuten ziudadean Ignazio zala iguesi etorritaco bat, eta Españan egon zala ascotan preso; eta Paris-en ere etzala egon seguru, eta bizia gordetzeco igues eguin bear izan zuala. Lambide au tratatu zan Juezaren tribunalean, jakiteco Ignazioren bizimodua. Baño laster esagutu zan guztia guezurra zala.

Eta nola Ignazioc gueyago beguiratzen zuan bere lagunenen izen onagatic, bereagatic baño, irichi zuan Benezian arkitzen zan Nunzio Apostolicoa-gandic sentenzia, zeñean aitortzen zan Ignazioren inozenzia bere bizitza eta eracutsietan.

## XX. BURUA.

*Nola etorri ziran Ignazioren lagunac  
Parištic Benexia-ra.*

**D**embora onetan asi zan guerra Fran-

zian, bada sartu zan emen ejerzitu aundi batekin Emperadore Don Carlos bostgarrena. Ignazioren lagunac, guerrac dacartzien peligroetatic aldeguiteagatic, eta lenagotic erabakiric zeucaten gordetzeagatic, irten ziran Paris-tic, Azaroaren amabostean; milla eta bosteun eta ogueita amaseigarren urtean. Guztia cijoazen oñez, pobrekiro jantziac, zemaizkiela bacoitzac bere estudioetaco paperac. Apaiz edo Sacerdoteac ziran irurac, au da Pedro Fabro, Claudio Jayo, eta Pascasio Broet; egunero esaten zuten meza, eta beste seiac comulgatzen ziran, biajeco nekeac ondo eramateco. Goizean ostatutic irte-tean, eta arratsaldean ostaturaeldutzean aurreneco ardura zan escaera edo orazio labur bat eguitea; goizetan bidean eguiten zuten meditazioa, eta au bucatzean, itzeguiten zuten gauza santuen gañean. Nola zan negua, igaro zituen neke aundiac otza eta bustiarekin: baño gogo onez eta contentuz eraman zituzten jakiñic zeramazkitela Jaungoicoagatic, zeñac gorde zituan peligro guztietatic.

Eldu ziran bada Beneziara Illbeltzaren zortzian, milla eta bosteun eta ogueita amazpigarren urtean, eta an arkitu zuten beren Aita eta Maisu espiritualala arestian esandan Sacerdote arrekin batean, oi dan bezela, guztien atseguin aundiarekin. Baño nola etzan era ona Erroma-ra joateco Aita Santuari bedeincazio escatzera, Jerusalem-a joan baño

lenago; erabaki zuten, bertaco ospitaletan caridadeco eguinkizunetan jardutea. Gauza ecusgarria zan, nola zebiltzan lanbideric bajuenetan gaisoac consolatzeagatic, eta gorputzeco eta animaco osasunari beguiratzeagatic.

Era onetan egon ziran urte artaco Garizumaren erdiraño, zeñean irten ziran Erromara-co Ignazio ez; beste guztiac, ala conbeni zalaco. Biajean zijoazen irunaca, oñez eta egunero barautzen zirala, Garizuma zalaco: iruretatic bat zan Sacerdotea; onec esaten zuan egunero meza, eta beste biac comulgatzen ziran.

Elduric Erroma-ra, aurkeztu ziran Aita Santuagana, eta onec chit ongui artu zituan; nola aietzaz baliatzeco asmoa zuen Jaungoicoaren serbizioraco eta animen oneraco, nai izandu zuan bere aurrean tratatu zezatela Teologico puntu baten gañean. Au eguinda eman zien Jerusalem-a joateco baimena, bere bedeincazioa eta limosna on bat. Eta Sacerdote edo Apaiz etziranai eman zien escubidea ordenac artzeco borondatezco pobreza eta jakindurico ontzatacoaren tituluz. Itzuli ziran Ignazioren lagunac Benezia-ra eta emen joan ziran bizitzera, lenago egon ziran ospitalera. Gueroßeago eguin zituzten guztiac Geronimo Beralo, Rosana-co Arzobispo, eta Aita Santuaren Legaduaren aurrean pobreza eta castidadeco botoac. San Juan Bautista- egunean

ordendu ziran mezaz Ignazio eta bere lagunac.

## XXI. BURUA.

*Nola banatu ziran Benexia-co errietan,  
animen oneraco lanbideetan  
jarduteco.*

Jerusalen-a joateco prestatzen zeudela, galdu zuten uste gabeen oso, beren deseoa betetzeco esperantza. Onetaraco motiboa izandu zan, zeren dembora artan berean Benexiaco Gobiernoac guerra eman zion Turcoari, baturic Aita Santuarekiñ eta Don Carlos Emperadoreakin. Eta nola ichasoa alde bietaco ontziz betea zegoan, ezin artu zezaketean erromeriar edo peregrinoac ichasbiajea. Emen icusi zan Jaungoicoaren Probi-denzia edo icustarreta, zeñac nai zituan em-pleatu Ignazio eta bere lagunac, oec uste zu-ten baño gauza aundiagoetan. Orretaraco laga zuan sortu zedilla urte artan, arestian esan dan guerra, zeñakiñ ezin joan zitez-kean ez aec, ez eta beste bidelariac ere, beste urteetan bezela. Jerusalem-a joateco esperan-tza galdu bazuten ere, orrez guztiaz erabaki zuten urte bete ichodotea, bitarte onetan be-te ote zezakeen Paris-en eguin zuten botoa.

Arestian aditu dezu, nola Ignazio eta bere lagunac ordendu ziran mezaz. Aurreneco meza debozio gueiagorekiñ esateco, guztiac egon ziran bacardadean biñaca, berroguiei egunean, eta ondorean esan zuten aurreneco meza, Inazio ez besteac.

## XXII. BURUA.

*Nola aguertu zitzayon Ignaxiori Jesu-Cristo Erroma-raco bidajean, eta emendic artu zuan*

JESUS-EN COMPAÑIAC,  
*bere izena.*

**B**izenzia-co zitudadean baturic Ignazio eta lagunac, eta icusiric egunetic egunera esperantza guñsiago zegoala Jerusalem-a joateco, erabaki zuten Italiaco urietara zabaltzea. Batzarre onetan bada, erabaki zan Ignazio beste bi lagunekin aldatu zedilla Erroma-ra. Ignazio mezaz ordendua bazegoan ere, nai izandu zuan urte osoco beta artu, artaraco prestatzeco ongui zekienac bezela, zer garbitasuna escatzen duan Sacerdote baten diñatasunac. Conformidade onetan artu zuan Erroma-raco bidea. Bidean guertatu zitzaion orain esatera nuana. Erroma-ra alderatzen

zala, sartu zan Eliza batean orazio eguitera: onetan zegoala, berotasun aundiarekin arguitu zitzaizcan biziro bere animaco beguiac, eta ecusi zuan, nola Aita Beticoac itzuliric bere Seme bacar; sorbaldan gurutzea zecarrenarengana, encomendatzen ziozcan Ignazio eta bere lagunac, eta jartzen zituan bere laguntzapean. Jesu-Cristoc alaſe artu zituan, eta Ignazio-rengana itzuliric esan zion: *Ni izango nazue Erroma-n zuen alde.* Aundia izandu zan, errebelazio edo aguermen onekiñ Ignazioc izandu zuan poza eta animaco indartea. Bucatu zuanean orazioa, esan zien bideco bi lagunai: Nere anayac, zer nai duan Jaungoicoac guzaz eguin ez dakit: edo curutze batean edo beste tormenturen batean bizitza eman dezagun; nic esan dezakedana da, nola nai dala, Jesu-Cristoc lagunduco digula: eta orduan, anima zitezen edozeiñ eramankizunetaraco, contactu zien izan zuen errebelazioa.

Guertaera onetatic ipiñi zitzayon, Ignazioc fundatu zuan Erljioari, JESUS-EN COMPAÑIA-REN izena. Dembora onetan, au da, milla eta bosteun, eta ogueita emezortzigarren urteco Eguarri gauonean esan zuan aurreneco meza Erroman, Jesu-Cristo jayoberria eduki zuan gambelaren capillan, berac pentsatu zuan baño ere beranduago; eta ala, mezaz ordendu zanetic, egon zan esangabe urte bete eta erdian. Bitarte onetan jarduten zuan

gau eta egun Jaungoicozco gauzetan contemplatzen, arturic bitarteco Jaungoicoaren Ama bere seme Jesus-engana aurkeztu zezan, eta onec ongui beguiratu eta artu zezan. Dembora enetan, aundiac eta miragarriac izandu ziran bere animaco arguitasunac, eta Jaungoicoaren bisitac Benezian, Bizenzia-n, eta Erroma-co bidean.

Dembora onetan eguin zion Jaungoicoac Inaziori erregalo aundi bat. Ara nola izanduzan. Arkitzen zala Ignazio, ejerzizioac ematen, Ortiz zeritzaion guizon jakintsu Español bati, Erroma-tic campora San Benito bizitutaco Casino-co mendian arkitzen dan monasterioan; ill zan Padua-co ziudadean, Hozes zeritzaion bere lagunetatic bat; eta Ignazioc, zeguan tokitic icusi zuan zeruan sartzen arguitasunez inguratutaco anima bat, eta ezagutu zuan zala bere lagun Hozes-ena.

## XXIII. BURUA.

*Nola Ignazio eta bere lagun guxtiac  
baturic Erroman, erabaki zuten  
fundatzea*

JESUS-EN COMPAÑIA EDO LAGUNTALDEA.

**I**billi ziran parajeetan, Ignazioren lagunac,

eman zituzten ejemplo on asco, eta esnatu zituzten gendiac piedadezco obretara. Milla eta bost.eun eta ogueita emezortzigarren urteco Garizuma erdian etorri ziran Erroma-ran non arkitzen zan Ignazio: eta batu ziran Quirino Garzonio zeritzaion guizon on eta prestu baten echean. Emen igaro zuten naico beartasuna; zergatic bizi ziran, egunero eskean biltzen zutenarekin. Baño laister ezagutzera eman ziran Erroman beren sermoiakin. Ignazioc predicatzen zuan gaztelaniaz Monserrateco Ama Birgiña-ren Eleizan: eta bere lagunac beste Eleizetan. Aundia izandu zan Erroma-n eguiñ zuten animetaco irabazia; zeren gendea gogoan sartu zan Confesio eta Comunioco Sacramentuac noizean beiñ urtean artzeco. Ordutic asi zan antziñaco cristauen Sacramentuac sarritan artzeco oitura, zeñean, beren calte aundian, atzera zeuden orduco cristauac.

Icusiric bada etzegoala esperantzatic Jerusalem-a joateco: eta beste aldetic Aita Santuac zabaldu nai zituala beretaco batzuec beste tokietara; alcarrengandic aldeguiñ baño lenago, fundatu nai izandu zuten beren artean gorde bear zuten laguntasun edo Compañia. Aziertoa izateco, eman ziran egun batzuetan jarduera izpiritualetara berotasun gueiagorekiñ, eskeñiric Jaungoicoari asmo onetaraco beren mezak, escatzen ziotela, arren arguitu zitzala beren adimentuac, beraren serbi-



zioraco obeena zana erabaki zezaten. Egunez jarduten zuten lagun urcoen animen onean: gabaz orazioan, eta beren artean gauzac tratatzen.

Lendabizico gabeen tratatu zuten Aita Santuaren aguinduz, bata besteagandic apartatu bearrean arkituco balira, gordeco ote zuten alcarren arteco batzarre edo unioa, aparteco tokietan arkitu arren. Emen guztiac aitortu zuten, Jaungoicoaren escuetaco lana izandu zala, batu izatea toki aiñ diferentetaco guizonac Jaungoicoaren serbizioco lambideetaraco, eta mesede oni erantzuteco, gordeco zutela alcarren arteco batakizuna.

Bigarren aldian tratatu zuten Benezia-n Aita Santuaren Legaduaren aurrean eguin zituzten castidade eta pobretasuneco botoaz gañera eguingo ote zuten, betico obediencia-coa: eta onetaraco autatuco ote zuten bere-taco bat Compañia guztiaren burutzat. Eta aziertoraco Jaungoicoagandic entendimentu-co arguitasuna escaturic, eta beste neurriac arturic, guztiac batera erabaki zuten baietz.

Iru illabeteren bitartean aguinduric utzi zituzten beste gauza asco, guztiac Jaungoicoaren serbizio aundicoac: Oen artean izan-du ziran: Compañian profesioa eguiten dute-nac, eguin dezatela obediencia-co boto apar-tecoa, zeñarekin lotutzen edo obligatzen di-ran Aita Santuac aguintzen dien tokietara joatera. Aurrai dotriña eracutsi dezatela,

Compañiacoac izan bear dutenac, izan ditezela aldeaurretic ejerzizio espiritualetan, peregrinazioetan, eta ospitaletan probatuac.

## XXIV, BURUA.

*Ignazioren eta bere lagunen contra  
Erroman alchatu zan persecu-  
zioa, eta onec izandu  
zuan atxena.*

**A**restian ezan diran obra onetan jardutzen zutela Ignazio eta bere lagunac, alchatu zan oen contra, aldeaurretic Ignazioc ecusia eta esana zeucan ecaitz aundi bat, oraiñ esango dan motiboagatic. Predicalari batec Erroman zabaltzen zuan disimuluarekin gende artean Lutero heregiaren dotriña gaiztoa. Ezagutu zuten aec, emendic zetorren caltea, eta asi ziran dotriña gaizto arren contra predicatzen. Etziran faltatu predicadore arren alde irten ziranac; eta berenarekiñ obeto irteteco, zabaldu zituzten batez-ere Ignazioren contra guezur-aldi aundiac, bestutzen zutela oekiñ beren honra. Atrebitu ziran esatera España-n Paris-en eta Benezia-n herejatzat condenatu izandu zala: zala legue guztiac ausitzen besteric etzekien guizon galdu bat, orobat bere lagunen contra esan zituz-

ten testimonio guezurrezco asco. Eguiñ zitu-  
an Ignazioc aleguiñ guztia, eguia eta inozen-  
zia aguertu zitezen lambide ura tribuna-  
lera eramanic: zergatic ecusten zuan gauza  
onetan zijoala Compañiaren izatea, eta infer-  
nucó etsaiac errezelaturic eguingo zien guer-  
raz, nai zuela asieran deseguin; edo beñepeñ  
desonratu, galerazotzeco animen probechua.  
Eta Jaungoicoac lagundu zion alaco moduz  
eze, ecaitz ura alchatzen parte gueiena izan-  
du zuana, izandu zan condenatua Erromaco  
Gobernadorearen sentenziaz, eta bertatic er-  
bestetua edo desterratua. Beste acusatzalleac  
au icusiric, beldurtu ziran onekiñ, eta atze-  
nean biurtu ziran Ignazio, eta bere lagun  
alabatzalleetara, aitorturic Erromaco Gober-  
nadorearen aurrean, engañatuac izan zirala.  
Ignazioren lagunac eta beste adiskideac zi-  
ran iritzicoac, aitormen aguirico onekin eguia  
aguertua guelditu zan ezkeru, etzala senten-  
ziaren bearric, baño Ignazio etzan onembes-  
terekin contentu: zeren contu ateratzen zuan  
gueroagoco demboretan izan zezakeala Com-  
pañiac calteren bat bere izen onean: zergatic  
egonic escribitua acusazioa eta ez aguertu-  
taco inozenzia, demboraren demboraz aztu  
zitekean, eta gueratu ura, eta pentsatu zez-  
keten ondorengoac, empeñoren baten bitartez  
guelditu zala estalia. Orregatic, bere honraco  
gauzetan Jaungoicoaren contura bere burua  
utziric, isillic egoten bazan ere, nola lambi-

de onetan zijoan Jesu-Cristoren eta bere lagunenen onra, eta animen salbazioa, naitzandu zuan guelditu zedilla eguia aguertua Juezen erabakiz, eta ecusiric oec gogoguchirekin zeudela sentenzia emateco, joan zan Aita Santuarengana, zeiñ arkitzen zan Erroma-tic campora lau legua bide: aditzera ematen dio, lambide artan igaro zuan guztia, eta zer motibo zituan sentenzia eman zedin, escatzeco. Aita Santuac ontzat eman zituan, Ignazioc eman ziozcan arrazoiac, eta ala, aguindu zion Juezari eman zezala bere erabakia, eta onec eguin zuan Aita Santuaren esana, ezarriric sentenzia era onetan; euzkarrara itzuliric, diola:

«Bernardino Cursino, Erroma-urico Gobernadore Generalac: Jaungoicoaren bedeincazioa izan dedilla escritura edo aguercai au icusico duten guztientzat. Izanic gauza importantzi aundicoa cristau erriarentzat, ezagutuac izatea, ala bizitzaco ejemplo onarekin, eta dotrina eguiazcoarekin Jaunaren maztian lan eguiñaz ascori laguntzen eta aprobechatzen dietenac: nola contrara, dotriña gaiztoco zalkea ereiten dutenac. Eta nola izandu diran ots batzuec eta eguin zalaketa batzuec, Ignazio eta bere lagun Pedro Fabro, Claudio Jayo, Pascasio Broet, Diego Lainez, Francisco Jabier, Alfonso Salmeron, Simon Rodriguez, Juan Coduri, eta Nicolas Bobadilla beneragarri Parisco Maisu eta

Sazerdote berecoi, Iruña, Genoba, Ziguëña, Toledo, Biseo, Ehora eta Palenzia-co Eliz barruti-etacoen dotriña, eta bizimodu eta batez-ere ematen dituen ejerzizio espiritualen gañean, eta nola batzuec zioten ejerzizio oec, eta oen dotriña dirala guezurrezco, supertiziosoac eta dotriña Cato-lica-gandic diferenteac. Guë gure ofizioai dagokionaz eta Aita Santuac aguindu digunaz, gauza ondo beguiraturic artu ditugu itankizunac, lambide au ezagüera gueienarekin erabakitzeco. Orregatic arturic lendabizico oen contra gaizki esaca eguiten zutenari: eta icusiric beste aldetic, España, Paris, Benezia, Bizenzia, Bolonia, Ferrara eta Sena-co aguercai edo testimonio publico eta Sentenziac, Ignazio eta bere lagun beneragarrien alde, eta beren acusatzallien contra. Onez gañera, esamiñaturic tribunalean, izan alditzkean testigu, bizitzan, jakindurian eta diñatasunean egokienac *Omni ex parte majores:* icusten degu gaizki esaca, salakizun eta ots guztiaç aien contra zabalduac, dirala guezurrezcoac. Orregatic derizkiogu gure ofizioari dagokiola, sentenziaz erabaki eta aguertu bear degula, erabakitzen eta aguertzen degun bezela, esan dan Ignazioc eta bere lagunac salakizun eta ots aiegatic, beren gañ infamiaric eracarri ezezic, contrara irabaci dutela bere bizitza onaren, eta dotriña tachagabecoaren aguiria. Icusiric guezurrez.

coac dirala, bere etsaiac jaso diezten gauzac eta izanic guizon birtute aundico, eta guztiz onac, aien alde testigutzen dutenac: Orregatic, nai izan degu eman gure sententzia, izan dediñ aguer cay edo testimonio argui bat eguiaren etsaien contra: eta paketzeco, acusatsalle eta murmuratzalle oen motiboz, uste eta sospecha okerren bat artu dutenen, animoac: escatzen, encargatzen, eta erregutzen diegula Jaunaren izenean fededun guztiai, eduki eta estima dezatela, guc arkitu eta dauzcagun eran Ignazio eta bere lagunac catolicotzat eta sospechagabecotzat, bizimodu eta doctrina orretan irauten duten artean, Jaungoicoaren luguntzarekin iraungo dutela, uste degun bezela. Erroman emana Azaroaren emezortzian, milla eta bots eun eta ogueita emezortzigarren urtean.—B. Governadore asieran esanac—Rutilio Furio: Secretario edo isillcariac.

Oraiñ jakitea conbeni da, nola lenago esan dan Predicadore, Ignazio eta bere lagunen contra Erroman alchatu zan persecuzioaren eraguille izandu zan ura, aguertzera eman zan, cer zan; bada eguiñ zan aguirian Luterano.

## XXV BURUA

*Ignazio eta bere lagunen arazoac Elizaren alde Erroman eta Erromatic campora.*

---

**A**restian esan dan Ignazio eta bere lagun-en contra infernucó etsaiac alchatu zuan ecaitz eta persecuzio aren ondoren, etorri zan, oidan bezela, pakea, bide onean eta zeruco laguntzan ustea jartzen dutenai guertatzen zaien bezela. Emendic laſter aundizki ascoc escatu zioten Aita Santuari bere estaduen oneraco guizon miragarri aetatic bat edo beste: eta ala, Aita Santuaren ordenaz zabaldu ziran Italia-n, eta beste tokietan. Ignazio bere lagun batzuekin guelditu zan Erroma-n.

Baña etziran egon oéc alferric: bada izan-du zan dembora artan gosetea Erroma-n; eta Inazio eta bere lagunac jardun zuten eguiten beartsuakin obra misericordiazco espirituco eta gorputzecoac, eracusten ziezela dotriña, eta biltzen zituala limosnac, beren echean baturic zeuzcaten pobreac mantentzeco, zenac etorri ziran izatera laureun-eraño.

## XXVI. BURUA.

*Nola Aita Santu Paulo irugarrenac  
confirmatu edo berriz ontzat eman  
zuan Compañia.*

**J**akiñic ongui Ignazioc berac eta lagunac, animen oneraco artzen zituzten lambideac, orduan izango zirala Jaungoicoarentzat gogozcoagoac, eta guizonentzat probechuzcoagoac, Aita Santuac ontzat ematen zuanean, confirmaturic Compañia, eta eguiñic Erligioa; aguertu zion bere eresi, eta asmo au Cardenal baten bitartez orduan Elizaco buru zan Paulo irugarrenari, esaten ziola: «Bera eta bere lagunac eskeiñtzen zirala beraren eta bere ondorengoen obedientzira boto berezi edo espezialaren bidez: zeudela asmo osoarekin beren lambide, eta bizitzac projimoen oneraco zuzentzeco: eta opa zutela Jaungoicoac ematen ziezten asmo oec etzitezela bucatu beren egunakin, baizic iraun zezatela, Jaungoicoac ala nairic, ondorenean imitatu nai izango duteneetan. Au irichitzeco beren nayera dala funda derilla Compañia onekin Erligio bat, eta onen instituto edo bizileguea izan dedilla prest egotea, Aita Santuaren aguinduc eguiteco, conformaturic



beren bizimodua alde aurretic eguiña zeucaten, eta oraiñ aurkesten zioten erreguela edo arkibidearekin.

Chit gogoz entzun zuan au guztia Aita Santuac: eta iracurri zuan erreguela, zeña ongui zeritzaion. Baña escatu zitzaionean eman zezala esribituric erregla arren ontzakida edo confirmazioa, Aita Santuac aditu nai izan zuan onetan iru Cardenalen iritzia. Oen iritziac ziran, etzala fundatu bear Erligio berriric, eta ala, eguin zuten aleguin guztia, confirmatu etzedin Ignazioren erreguela.

Jaungoicoac nai zuan aditzera eman, bere escuetaco eguinkera izango zala, ondo esaminatuta Aita Santuac ontzat emango zuan, arestian esan dan erreguela. Au obeto irichitzeco Jaungoicoagandic, eguin zituan Ignazioc orazio luzeac, eta promestu zion esanezazico zituala millen batzuec meza, zeñac confirmatu ondorean, esan ziran urteren batzuetan Compañia onetaco Sacerdoteacgatic. Etziran izandu alferricacoac Ignazioren aleguiñac; bada lenago bere asmoen contra ziran Cardenal aec berac, guero izan zituan bere alde, Jaungoicoac aldatu zieztelaco beren biotzac. Ala bada, sendocoitu zuan len dabizico Aita Santuac JESUS-EN COMPAÑIA milla eta bost eun eta berroqueigarten urtean, Agorraren oguei ta zazpian. Izanic JESUS-EN LAGUNDI au fundatua Fede eta Eleiza erejeengandic escudatu edo defenditzeco,

eta jentillen artean zabaltzeco, Jaungoicoac aukeratu zuan, bera mundura bialtzeco, dembora egokiena; au da, Eliza Ama Santaren contra etsai asco alchatu ziran sasoya.

## XXVII. BURUA.

*Nola izandu zan Ignazio autatua  
Jesus-en Compañia guztico  
buru.*

**J**ESUS-EN COMPAÑIA Aita Santu Paulo irugarrenagatic berriz ontzatu edo confirmatu izan zanetic, Ignazioc eta lagunac, lenengo pensatu zuten gauza, izandu zan, beren artecoren bat guztien buru aututzea. Onetaraco batu ziran Erroman Ignaziorekin batean, Italian zeuden lagunac, eta obeto aututzeco, egon ziran orazioan alde aurretic iru egunean: oec igarota, iracurri ziran, ala an zeudenen botoac, nola Italia-tic campora zebilltzan beste lagunenac, eta ecusi zan, berea ez beste boto guztiac, zirala Ignaziorentzat.

Bere humiltasunagatic zeritzaion etzala cargu ura arrentzat eguiten, eta ala, eguin zituan aleguiñac ez artzeco: baña alferric izandu zan; zergatic bere lagunac baita ere bere confesorea egon ziran baietzean. Onekin macurtu zuan bere burua, aiñ aguirian

aguertzen zan Jaungoicoaren borondateari, eta artu zuan bere gain cargo ura.

Au eguinda aldeaurretic señalatu zuten egun batean, joan ziran San Pablo-co Elizara, eta emen eguin zuten beren Profesioa, era onetan. Ignazio irten zan meza esatera, Ama Birjiñaren aldare batera, eta eldu zanean Jauna artzeco dembora, patena Jaunarekin escu batean zeucala, eta bestean Profesioco papela, itzuliric bere lagunonz, iracurri zuan besteac aditzen zutela bere Profesioa, eta ondorean artu zuan Jauna. Guero beste lagunac eguin zuten beren Profesioa eta Ignazioc eman zien Comunioa. Eleiza artatic irten baño lenago, eman ziozcaten Jaungoicoari eskerrac, zeren izan zuten egun ura icusteco dicha, zeñean escañi ziran bere serbizioz biotz guzitic.

## XXVIII. BURUA.

*Nola asi zan Ignazio Compañia gobernatzan edo eraentzen.*

**A**ra nola asiera eman zion bere cargo berriari. Icusi zuanean bere burua aiñ cargo altuan, nola zan umildadearen aiñ zaletua, eta bere mendecoai au bera eracusteagatic, bera joan zan sucaldera, eta emen egun as-

cotan jardun zuan coziñariaren langaian, eta eguin zituan echecho beste arazo beecoac. Eta alaco eran jarduten zuan lanbide oetan, eze etzitian utzitzen, bere cargu altuari zergozkionac; zeren guztietaraco zeucan dembora señalatua.

Onen ondoren asi zan dotriña aurrai eracusten Compañia-co Eleizan, eta au eguiñ zuan berrrogei egunetan errencaran. Baño etziran bacarric aurrac, dotriña oetara etortzen ziranac, baita ere persona eguiñac. Eta emen icusten zan, Jaungoicoac Inazioren itzari ematen zien indarra; zergatic etzekielaco ondo Italia-co itzcuntza, etziran bere itzac egokiac; orrez guztiaz, aekin sortutzen zuan ascoren biotzetan pecatuen damutasuna. Bera ezagutu eta predicatzen aitu zuan Aita Ribadeneirac dio, aiñ berotasun aundiarekin au eguiten zuala, non bazidurian botatzen zituala caridadezco garrac bere aotic entzulien biotzetara. Dembora onetan zabaldu ziran Aita Santuaren aguintez Inazioren lagun eta mendecoac Eleizaren on aundiraco, España-ra, Franzia-ra, Portugal-a, Alemania-ra, Irlanda-ra eta Indieta-ra. Baita ere fundatu ziran Compañiaco Colegioac Coimbra-n, Goa-n, Padua-n, Alcala-n, eta Erroma-co uriyan.

## XXIX. BURUA.

*Ignazioc Erroman eguin zituan  
obra onac.*

---

**E**z bacarric beguiratzen zion Inazioc Compañia-ren gobernu, eta aurrerapenari, baita ere zabaltzen zuan bere ardura alzeza-keana Compañiaz campoco personetara. Ardura onekin eguiñ zituan aleguiñ aundiac, kendu zitezen Erroman griña char ta bizioac eta funda zitezen obra onac. Oen artean lendabizico izandu zuan berritu zedilla Inozenzio irugarrenaren legue ura, zeñean aguintzen dan, medicuac eziñ senda dezakela gaisoaren gorputza, confesioaren bitartez, bere anima sendatua ez dagon artean. Eta legue au obeto artua izan zediñ, aleguiña eguin zuan, bigundu zedilla onen laztasuna, aguintzen zala, andic aurrera bisitatu litzakela medicuac beiñ, eta bi aldiz, baño ez irugarren aldian, alde aurretic confesatuac ez badaude. Ala erabaki zuan Aita Santu San Pio bostgarrenac.

Icusiric Ignazioc Erroman arkitzen zirala Judu asco, oec erreşago biurtu edo conbertitu zitezen, artu zituan neurri guztiz egokiac: nola ziran, bide onera etorri nai zutenac, Compañia-co echean artzea, emen bere con-

tura mantentzea, Jesu-Cristoren dotriña eracustea, eta Cristau eguiten ziranean, languinza edo ofizioen bat icasi zezaten aleguiñ eguitea: eta au guztia eguiten zuan Ignazioc, bera eta bere lagunac beartuac arkitzen baziran ere. Eta obra on au bere egunakin bucatu etzediñ, eta izan zediñ iraunpengoa, fundatu zuan Erroma-n, neke aundiaz izandu bazan ere, eche bat, zeñean bildu zitezkean, conbertitu nai zuten Juduac, edo esan oi dana, catecumeneoac.

Onez gañera fundatu zituan Erroman, beste iru modutaco echeac; bat emacume galduen erretiroraco, beste bat, bere anima galtzeco peligroan zeuden doncellen gordetzara co, eta beste bi, ume zurtzac biltzeco, batean mutillac eta bestean neñcac. Eche oietan ematen zitzaien corputzeco mantenuaz gañera, animacoa, au da dotriña ona, eta eracusten zitzaien oficioen bat, onderean garbירו beren bizimodua atera zezaten.

## XXX. BURUA.

*Erromatic campora idiki zituan  
Colejioac.*

**E**tzan Erroma-n bacarric icusten Ignazio-ren zeloa animen oneraco; ezpada zabaltzen zuan beste toki ascotara. Jaungoicoac mu-

guituric ascoren biotzac, escatzen zioten Ignaziori beren oneraco bialdu zitzala bere semeren batzuec, eta beren contura guelditzen zala oei echea, eta beste bearco zituzten gauzac ematea. Era onetan iriki ziran Ignazioren aguintez Compañiaco Colegioac, Balenzia-n, Balladolid-en, Gandia-n, Barzelona-n, Zaragoza-n, Salamanca-n, Bolonia-n, Mesina-n, Palermo-n, Benezia-n, Tibuli-n, Ingolstadio-n, eta Monaki-on. Baita ere dembora oetan Jesus en Compañiacoac zabaldu ziran Africa-ra eta Brasil-era: eta berriro confirmatu zuan JESUS-EN COMPAÑIACO Erligioa Aita Santu Julio irugarrenac: eta ondorean Aita Santu Gregorio amairugarrenac.

## XXXI BURUA.

*Nola Ignazioc utzi nai izandu zuan  
Compañiaco Generaltza-carguba,  
eta bere lagunac etzioten  
utzi.*

**I**cusiric Ignazioc berriro Confirmatua Compañia Aita Santu Julio irugarrenagatic, eta Jaungoicoaren, laguntzarekin aurreratua, deitu zituan Erroma-ra milla eta bosteun eta berrogueta amargarren urtean makiñabat Probinzitan zabaldua zeuden Compañiaco

Aita lenendico edo prinzipalenac. Elduric Erromara, bildu zituan toki batean, eta era onetan bidaldu zien bere ezcuz escriptutaco carta bat, zeñean bere umiltasunac esan-erazitzen zion, bera etzala cargu artaraco eguiten zana, eta ala, beste bat aukeratu zezatela bere orde, utzitzen zuala, eman zioten cargu ura.

Iracurriric carta ura bilduta zeuden guztiac, asi ziran alabatzen Inazioren deseoa Santua, miretziric guztiz, eguikera onetan aguertzen zuan umiltasun aundiaz; zeren izanic aiñ egokia bere eronde edo gobernu, berari zeritzaion etzala artaraco. Eman zioten errespuesta izandu zan, beren conzienziac etziela aguintzen, arrec nai zuenera jartzea gauza orretan: eta Jaungoicoac aututu zuan eskero, izan zediñ beren Maisua eta Compañiaren Fundatzallea, berac izango bear zuela, bizi zan artean Compañiaco General eta buru.

Onekin etsi zuan Inazioc, aurrera ere jarraitu bearco zuala cargu artan, eta au zala Jaungoicoaren borondatea. Cargu au obeto betetzeco eman zion Compañiari, animaco arguitasun aundiackin escriptutaco erreguela.

Orduraño bezela aurrera ere bedeincatu zuan Jaungoicoac Ignazioren eronde; zeren lenagocoaz gañera idiki ziran, JESUS-EN COMPAÑIACO Colejioac, Erroma-n, Oñati-ñ, Bur-



gos-en, Medina de Campos-en, Toledo-n, Florenzia-n, Napoles-en, Ferrara-n, Bienna-n, Modena-n, Eboran, Abila-n, Cordoba-n, Sebilla-n, Granada-n, Plasenzia-n, Cuencan, Genoba-n, Loreto-n, Zaragoza-n, Monreal-en, Murzia-n, Monterreyes-en, Ocañan, Montilla-n, Marchena-n, Praga-n, Sena-n, Bibona-n eta Catania-n.

## XXXII. BURUA.

*Nola ill zan Ignazio Erroma-n.*

**A**rkitzen zala Ignazio irurogueita bost garren urtean, eritasunez betea, dembora aetaco alborotoakin, eta Eliz Ama Santaren neke berriakin naigabetua, eta Jesu Cristo icusteco eresiaz irazekia, asi-zan Jaungoicoari gogokiro escatzen, arren atera zezala mundu onetatic, eta eramán zezala zeruco jauregui ederrera, zeñean amatu eta alabatu zezan zerutarren artean. Zergatic, eramánarren pazienzian mundu onetaco nekeac, conformatzen zala Jaungoicoaren borandatearekin; aimbesterañocoa zan Jaungoicoa icusteco, eta gozatzeco eresia; non eziñ pentsa zezakean bere atzeneco orduan, pozezco negar malcoac išurigabe.

Egun aetan Erroma armadunez eta soldaduz betea zegoan, guerraco dembora zala-

co: eta oidan bezela, bulla eta iscambilla besteric etzan aditzen. Au ez ecusteagatic, eta bere bacardadean obeto negartzeco aimbeste icuscarri triste, aldeguin zuan aparte-co eche batera. Emen udaco beroackin, eta aize charrackin, lenago baño ere gañoago jarri zan: eta ezaguturic alderatzen zala bere atzeneco ordua, itzuli zan bere echera. Esan diteke leendic ezagutu zuala; bada illabete batzuec lenagoz escribitu zion D.<sup>a</sup> Leonor Mascareñas-i despeditzen zala bera-gandic, eta esaten zion, ura izango zala, atzenengo escribituco zion carta, eta zerutic encomendatuco ziola benetanago Jaungoico-ari. Chanda artan gañoasco zeuden echean, zeñac icusten zituzten medicuac, Ignazioren gaitza ezertan artzen etzutela; sinisturic zala sarritacoa, eta arrisco gabea. Baño Inazio medicuac baño obeto zekienac bezela, zer eguiñ nai zuen Jaungoicoac berekin, confesatu eta comulgatu zan, eriotzaraco prestatzeco, aiñ prestatua bazegoan ere beti. Eldu zan bada milla eta bosteun eta berroqueita amasei-garren urtea, eta Uztaillaren ogueita amargarren eguna: egun onetan arturic aparte bederatzi urtean Compañia gobernatzten lagundu zion Aita Polanco, eta oni gogoratzen etzitzaiola, zer naico ote zion, esan zion sosegu aundiarekin: Maiñu Polanco, alderatzen da ni mundutic joateco ordua: zuaz muñ eguitera Aita Santuaren oña nere ize-

nean, eta escaguiozu bere bedeincazioa, eta onekin nere pecatuen barcazio osoa, mundu onetatic irtetean, izan dezadan confianza eta alaitasun gueyago: eta esango diozu, zeruan icusten banaiz, Jaungoicoaren misericordian ustea daucadan bezela, ez naizela aztuco beragatic escatzea, oraiñ daño eguiñ dedan eran.

Bidaldu zion Aita Santuac bedeincazio amarezcoa naigabezco señale aundiakin. Erroma-co eche artan zeudenac etzekiten duda artan zer eguiñ. Alde batetic gaitza etziduri-en larria; eta medicuac berac ere etzuten us-te peligrozcoa zala, eta Ignazioc berac etzuan eguiten aldaeracic bere buruaren tratamen-tuan: eta gau artan bertan, bestetan aguer-tzen zuan arpeguico alaitasunarekin jardun edo tratatu zuan echeoakin eguin bear bat; zergatic nola zan aiñ hümilla, etzituan aguertu nai Jaungoicoac eguiten ziozcan doaiac, ezpada eguiñ zezatela medicuac beren bearra, eta eguiñ zedilla aen esana. Beste aldetic kezca ematen zien Aita Polancori esan ziozcan itzac, eta bidaldu izana bera Aita Santuarengana, bedeincazioa esca'zera: eta zeritzaioten etzuela au eguiñ Ignazioc motibogabe, eta bere oriotzaz seguru egon gabe. Atzenic, lambide ura beren artean tratuta, erabaki zuten urrengo goizeraño icho-dotea, eta orduan erabakico zala, zer eguiñ bear zuan. Urrengo eguna arguitzean, badijo-

az bera icustera, eta billatzen dute azkeneco asnaseen aldean: eman nai diote alimentu pisca bat, eta Ignazioc erantzuten die: ez da dembora; eta escuac eta beguiac zeruronz zuzenduric; eta mingañarekin, eta biotzarekin Jesusi deitzen ziola, pake aundian eman zion Jaungoicoari bere anima, Ustailarren atzeneco egunean, milla eta bosteun eta berrogeita amaseigarren urtean, irurogeita bost urte zituala. Utziric fundatuac, amabi Probinci, eta oetan eun colegio, edo eche Compañiacoac.

### XXXIII. BURUA.

#### *San Ignazioren bertuteac,*

**B**erariaz utzi da toki onetaraco, San Ignazioren bertuteen gañean jardutea, icusi ditzan batera obeto, bere bicitzaren iracurleac. San Ignazioren birtute guztiaz jardutea izango litzake liburu labur onetaraco chit luzea; eta eguingo dana da, icutzea gueiena aguertu zituana.

#### I.

#### Orazioco doaia

**J**aungoicoagana biurtu edo combertitu

zanetic, izan zuan orazio eguiteco gogo aundia. Mezaz ordenduta, errezatzecoan Brebierioa, aimbesterañocoac ziran barrungo poztasunac, eta negar malcoac, eze beartua icusten zan gueldierac eguitea, aldian itz bacoitzean, eta etorri zan beguietaco bista galtzeco zorira. Etzuan erabakitzen gauza pişuric, gogoz Jaungoicoari, orazioa eguiñgabe. Batez-ere onetan zuan ardura aundia, ari zanean escribitzen compañiaraco erreglac. Gauza icustecoa zan, zein erraz Jaungoicoagana alchatzen zan: landare bat, fruta bat, aberecho bat icusiarekin bestegabe, bere anima goratzen zan zerura. Aiñ benetan eta aimbeste irazakitasunekin eguiten zuan orazioa, eze guertatu izandu zitzaion gañotzea, onetan jartzen zuen animaco indarren bidez. Eta arreta edo atenzioa, etzuan jartzen bacarric gauza aundietan, Jaungoicoarekin orazioan jardutzen zuanean; baita gauzaric chikienetan ere, bazirudian icusten zuala animaco beguiackin Jaungoicoaren aunditasuna. Orazioan sentitzen zuan barrungo berotasuna, aguertzen zan bere arpeguian ere.

## 2

### Lagun urcoentzaco Caridadea.

**G**auza jakiña da, Jaungoicoaren amorioa

San Ignaziogan aundia zan bezela, ala izango zala lagun urcoena ere: bada oec, bata bestearekin dabilta beti. Beraren ejemplo edo guertaldiac aguertuco digute au.

Parisi en zeraman guizon batec bizitza gaztoa emacume batekin: jakiñic au Ignazio-c eguin zituan aleguin asco, guizon ura pauso aetatic apartatzeco; baño guztia alferric; atzenic gogoratu eta eguin zuan anima arren oneraco, orain esatera nuana. Ignazioc, putzu aundi baten ondotic igaroco zala guizon ura bere calgarrizco tokira, jakiñic, zaitu zuan, eta leporaño ur otzetan sarturic, andic pasatzeracoan ekin zion deadarca: «Zoaz, zorigaiztoco ori, zure gogo zikiña eguitera: ez dezu icusten zure gañera datorren Jaungoicoaren asarrearen golpea? etzaitu icaratzen, zu tragatzeco idikia dagoan infernuac? zuaz; emen egongo naiz ni, zugatic penitencia eguiten, aec eta Jaungoicoac bere erukitasunez barca deizun, irabazia daucazun castigua». Arriturric guizon ura caridadezco ejemplo onekin, etzan aurrera igaro, eta Jaungoicoac biotzean icuturic, aldeguin zuan pauso aetatic.

Milla eta bosteun eta berrogei ta bostgarren urtean, Erroma-n arkitzen zan erlijioso bat, aurrena Ignazioren adiskide aundia, eta guero embidiaz bere etsaia: etzan lotsatu esatea, surtara botaco zituala Perpiñan-dic eta Sebilla bitartean arkitzen ziran Compañiaco

guztiac: eta bidaldu zuan Ignaziorengana persona bat, bere partetic au esan zeion. Ignazioc esan ziozcan pake aundiarekin mandadari oni, escribituric itz oec:

«Jauna, esanguiozu Erligioso orri eze, berac dionez, erre bear dituen bezela Perpiñandic Sebilla bitartean arkitzen diran guretaco guztiac, nic ere diodala, eta deseaten derala, bera eta bere adiskideac, ez bacarric Perpiñandic Sebilla bitartean, baita ere mundu guztian arkitzen diranac, izan ditezela irazeki, eta erreac Jaungoicozco amorio-sutan».

### 3

#### Bere umiltasuna.

**J**aungoicoagana biurtu zanetic, iduki zuan guztiz sartua bere biotzean umiltasuneco bertutea. Bere poza zan, arlote jantzia ibiltzea, ospitaleco pobreakin bere burua bat eguiñic icustea, eta Jesu Cristo gatic lotsatua izatia.

Jaungoicoaren graziarekin etorri zan alaco umiltasunezco mallara eze, iltzan baño urte azcoz lenago, etzuan izandu bere buruaren ongui-iritzi edo banagloriaco tentazioric; zeren zeruco arguitasunaren bidez bere anima zegoan aĩñ sendotua bere buruaren desprezioan, eze esan oi zuan, bizio guztien

artean banagloria zala guchiena bildur ziona.

Ezer esaten zanean beraren aurrean, bere alabantzan izan zitekeana, lotsaturic guertzen zan. Ala, esaten ziotenean, zein zabaldua zegoan munduan Jesus-en Conpañia, eta cer frutu gozoac ematen zituan, nola zan au gauza bat, zeñean zuan parte aundi bat, isill isillic egoten zan.

Esan oi zuan, echeco guztiac ematen ziotela birtutezco ejemploa, eta lotsatzeco gaya.

Bein batean esan zion Aita Ribadeneira-ri, Jaungoicoari escatu bear ziola, iltzen zanean bota zezatela bere gorputza gorotstegui batera, egaztiac eta zacurrac jan zezaten.

Baño oraindic gueyago aguertu zuan bere umiltasuna, araco bere lagunac conformidade osoan eman zioten Conpañia guztico aguintea, artu nai ez izatean; eta artuta guero, utzitzeco eguin zituan aleguin aundietan. Eta au eguiten zuan, zergatic bere humiltasunac sinistraerazotzen zion, etzuala berac besteac ondo gobernatzeco doairic. Eta ambat eta gueiago au miretsitzecoa zan, zembat eta bera ezagutzen zutenac, izusten zuten, zein aziertu aundicoa zan beraren erande edo gubernua.



4

**Bere griñen ildura edo  
mortificazioa.**

=

**J**aungoicoaren graziarekin eta bere aldetic  
ipiñi zuan ardurarekiñ, alaco eran menderatu  
zituan bere griñac, eze bazidurian etzutela  
sarreraric bere biotzean gogo gaiztoen mu-  
guimentu desordenatuac. Eta gai onetan  
etorri zan aimesteraño, non izanic berez bi-  
zia eta aserretsua, icusiric medicuac bere  
itzetan eta obretan aguertzen zuan bigunta-  
suna eta pakea, zeritzaioten Ignazio zala  
berezcotasun otz eta motelecoa. Biziozco ge-  
nio aserrescoa mende ta neurriratu bazuen  
ere, gorde zuan beti animaco indarra, eta  
bizitasuna, Jaungoicoaren onraco eta ani-  
men oneraco gauzetan.

Beiñ baño gueiagotan egusi zuten berare-  
kin bizi ziranac, itzketan berakin zegoala  
alaitasun aundiarekin, deitzea, errietatu nai  
zuanen bat; eta eldutzen zanean, arpe-  
guico alaitasuna aldatu aserreantzean, errie-  
tan garratskiro eguiñ; eta ura andic joaten  
zan bezin laister, bera itzultzen zala len-  
dabizico conbersaziora, lenagoco arpegui  
alai, eta pakearekin, ezer igaro ez balitzaiò  
bezela. Bacarric artzen zuan aserreantza,

bear zanean; baño bere barrungo pakea galdugabe.

5

Bere itzetan neurria eta indarra.

**B**ere itzetan zan guztiz beguiratua; eta itzeguiñ baño lenago ongui pentsatzen zuan, zer esatera zijoan. Inor erreprenditu bear zunean ere, etzion beñere esaten miñ eman zezayokean itzic, ezpada arrazoi sendoackin aguertzen zion bere utseguite edo culpa, obeto ezagutu zezan, eta biotzean icuturic berez lotsa zediñ.

Erreprenditzean itzac ongui neurritzen zituan bezela, ala ere guztiz beguiratua zan bestegatic gaizki ez esaten, naiz izan zitezela aguiriac lagunarcuen bizio eta pecatuac.

Aiñ aundia zan bere itzen indarra, eze bazidurian bere escuan zeuzcala guizonen biotzac, berac nai zuenera muguitzeco eta au etzuan eguiten itz ascorekin, ezpada esaten zituan arrazoiackin. Biotz gogorreco guizonac izan arren, alaco moduan biguntzen zituan eze, oec berac miretsiric guelditzen ziran, berangan icusten zuten aldaera edo mudantzaz.

Milla eta bost eun ta ogueita emezortzigarren urtean, alchatu zan Erroma-n San Inazio

eta bere lagunen contra ecaitz aundia, eta esan ziran oecgatic gauza aiñ ichusi eta guezurrezcoac eze, Juan Dominico de Cuppis Erroma-Elizaco Cardenala, sartu zan erreze-logaiztoetan: eta sinisturic Ignazio zala guizon engañatzallè eta gaizto bat (aguirian esaten zanez, adierazo zion Kirino Garzonio zeritzayon bere aide bati, zeñaren echean bizi ziran bera eta bere lagunac, aldeguin zezala Ignazio-gandic, eta bota zezala bere echeti: nai ez bazuan etorri zedin bere gaiñ belzizta edo infamiaren bat arren tratementuarekin. Erantzun zion Kirino-c Cardenalari, asco tratatu zuela Ignazio eta bere lagunackin, eta arc esan zezakeana zala, etzuala icusi aetan, guizon santuen diña diran gauzac besteric. Cardenalac erantzun zion: Kirino, engañatua zaude, eta ez da zer miretsi; zergatic eziñ aditu zitzakezun nic bezela guizon oen gauzac; oec santuac dirudite, baño ez dira. Larritu zan Kirino, Cardenalaren itz oec entzutean. Bereala joan zan esatera Ignazio-ri, zer pasatzen zan; eta escatu zion esan zeiola, zer eguin bear zuan estuasun artan. San Ignazioc parrezco arpegui batekin artu zuan, eta esan zion, etzedilla naigabetu: etzala Cardenala bacarric, ura ziona, eta ez da ere aurrenecoa, engañatua izan zana informazio guezurrezcoakin; eta ustea zeucala Jaungoicoan, etzala, izango atzenecoa desengañatzen. Kirinoc erregu-

tu zion Cardenalari, adizezala Ignazio, eta ala obeto ezagutuco zuala zein zan Ignazio. Cardenala jarri zan Kirino-c esan zionera.

Egun señalatuan etorri-zan Ignazio, eta egon zan bacarric Cardenalarekin bi orduan onen guelan: eta Jaungoicoac eman zien arren itzai aimbeste indar, eze, Cardenala arrituric esan ziozcan arrazoiackin, auzpeztu zan arren aurrean, eta escatu zion barcazioa, beragatic sinistu, eta esan zuanagatic. Alaco eran aldatu zan, eze, andic aurrera izandu zan Ignazioren adiskide aundia eta Compañiaren laguntzallea.

## 6

### Bere errukitasuna eta biguntasuna.

**N**ola zan aiñ aundia bere caridadea; emendic zetorkion eheco gaišo eta argalakin zuan errukitasuna.

Aguindua zeucan iñor gaišotzen zanean, esan zeiotela, eta echeraco gauzac erosten zituanari, aguertu zedilla beregana egunean bi alditan, esatera ecarri ziozcan gaišozaia-ri, gaišoentzaco bear zituan gauzac. Eta echean etzanian diruric erosteco, aguintzen zuan saldu zitezela metalezco ontzi batzuec, eta au asco ez bazan, saldu zitezela onetaco

mantac, gaiñoai emateco Medicuac aguintzen zuan guztia.

Eta icusiric Compañiaco estudiante asco bertute eta abilidade aundicoac nekearen-nekez edo ill zirala, edo guztiz argalduac guelditzen zirala; eguiñerazo zuan mazti batean eche bat, zeñean bere demboretan descantsatu zitezen, guero gogoz lana eguiteco. Eta esan arren batzuec, icusiric eheco premia aundia, etzala izango guchi mantentzea bacarric, onez gañera campoco eche ura eguin-gabe; erantzuteñ zien: Gueiagotan daucat nic guretaco baten osasuna, mundu guztico ondasunac baño; eta etzioten beñere aukendu burutic. Eta esan oi zuan, gaiño dagoanean bat, eziñ jardun lezake projimoen probechuan; baño osasunarekin on asco eguin dezake Jaungoicoaren serbizioan. Ain contuzcoa eta biguña izan arren gaiñoakin, orrez guztiaz, icusten bazuen oetaco bat pazienza eta obedientzi guchicoa, gaitzac irauten zuan artean, etzion ezer esaten, baño guero sendatzen zanean, ematen zion bere castigua.

## 7

### Bere animaco indartea.

=

**G**auza ascotan aguertu zuan San Ignazioc bere animaco indartea. Izanic aiñ eria, eta

oñaze aundiaz atormetatua, etzitzaion beñere aditu zispuru bat, ez da ere icusi bere arpeguiian barrungo moteltasunic, ezpada arpegui alaiarekin, bacarric esaten zuan eman ziozcatela bear zituan sendacayac.

San Ignazioren animaco indarte onec zeucan bere sustraia Jaungoicoaren uste edo confiantza sendoan, eta ala, diruaren faltac etzuan atzeratzen, lambide onac asi, eta aurrera eramateco. Orregatic, beartua egon arren; beñere etzuan utzitzen iñor artzeric; Compañiaraco egokia eta Jaungoicoagandic deitua zetorrenic.

Eta miretsiric ez bacarric campocoac, baita ere echeocoac, nola eguiten zuan San Inazioc aimbeste gende echean mantentzeco, onec errentaric izan gabe, eresi aundiarekin zeuden au jakiteco. Alaco batean galdetu zion confiantzan echepeco batec, eta San Inazioc esan zion, zer socorru espera zituan. Besteac esan zion: ori guztia ez da s'gurua, eta ala izanda ere, guchi da beardanarentzat. Orduan erantzun zion Ignazioc: «Ez dakizu zein indar aundicoa dan Jaungoicoagaco esperantza? eta ezin izan ditekeala esperantza, gauza ugari danean?»

Jaungoicoac ongui pagatzen zion Ignaziori, beragan zuan uste-ona. Bein batean, echea premia aundian arkitzen zala, guertatu zan, orain esango dedana. Juan de la Cruz zeritzaion anai lego bat zetorren eche-

ronz illunabar batean; ustegabeen irten zitzaion bidean guizon bat, zeñac ezer esangabe, eman ziozcan escura urrezco eun diru, eta beste gabe escutatu zitzaion bere beguie-tatic.

## 8

### Bere prudenzia.

—

**E**man zion Jaungoicoac grazia aundia, conzienzi nastu eta larrituac paketutzeco, alaco moduan eze, asco etortzen zitzaiozcan erremedio billa, zeñac etzekiten, nola aditzera eman beren gaitza, eta Ignazio-c beren barrua icusten bazuan bezela, azaltzen zien, zer igarotzen zitzaien, eta onez gañera ematen zien sendabide egokia.

Ara zer guertatu zan beiñ Paris-en. Zijoala Ignazio bere escale edo icasle espiritual bategin, icusi zuten biac cale batean guizon arlote, eta argal bat, zijoala negarrez bezela. Ignazio-c, zirudienez, Jaungoicoac arguituric esan zion berealañen lagunari: zijoala guizon arren ondoren, eguin zezala arrec eguiten zuana eta bera jungo zala aen ondoren. Ala eguin zuan Ignazioren lagunac, zeñac arkituric guizon ura uritic campora toki bastar batean, galdetu zion zer zuan, eta zer billatzen zuan an? Eran-

tzun zion guizon arrec: Soca baten billa nabill nere burua urcatzeco; zergatic naiago det eriotza, bizitza necoso au baño: aimbesterañocoac dira nere oñazeac, eta nere animaco illuntasun edo tristurac. Orduan esan zion Ignazioren lagunac, bera ere orobat zegoala, eta etzuala billatzen bideric neke aetatic irteteco, eriotza baizic. Onetan zeudela etorri zan Ignazio, eta itzuliric bere lagunagana, asitzen zaio esaten, ezagutzen ez bazuen bezela: ¿Zein zera zu? ¿Nola zabiltza aiñ arlote? Bere lagunac esan zion aimbeste zirala bere trabaju eta naigabeac, eze etzuala billatzen beste bideric aetatic irteteco, eriotza baizic. Orduan asi zan Ignazio itz biguñ eta gozoackin consolatzen, eta aitortu erazi zion damutzen zala, izan zuan borondate okerraz; eta aurreraco artu zuan asmo eguiazcoa, erozein neketan Jaungoicoagan uste osoa izateco. Au guztia eguin zan disimulo aundiarekiñ, ernegatuta zegoan beste guizonaren oneraco. Itzuliric onengana Ignazioren laguna esan zion: ¿Zer deritzatzu? nic beintzat guizon onen consejua jarraitu nai det: zeren icusten det, nere ezcuz artuco nukean eriotza, izango litzakean neke aundiagoen asiera; nola diran impernuco oñazeac. Au adituric guizon ernegatu arrec, eta muguituric Ignazioren itzackin, esan zuan, ori bera zeritzaiola arri ere, eta ala bertatic utzitzen zuala, artu zuan asmo gaiz-



toa; eta eman ziozcan Jaungoicoari ezker-  
rac, libratu zualaco arrişcu artatic.

## XXXIV. BURUA.

*San Inaxio-ren mirari bi, zeñnac  
dauden atereac Canonixazioco*

### BULDA-TIC.

**I**sabel Robelles zeritzaion Santa Clara-co  
monja profesa, irurogei ta zazpi urtecoa, pa-  
raje goico batean zerbait eguitean, bat ba-  
tean alaco golpe aundiarekin erori zan, eze  
istarreco ezur guztia purrucaturic guelditu  
zitzaion; eta berrogei eta gueiago Medicu  
eta barberuac erremedioac eman ziozcaten,  
baño alferric; orregatic etzitzaion kentzen,  
ausiera arrec ematen zion oñaze eta calen-  
tura; eta gustien iritzian, etzegoan gaişoa-  
rentzat sendatzeco esperantzatic mundu  
onetaco erremedioackin, eta bereala illtzeco  
zorian zegoan: bere burua gaişoac ala icu-  
siric, escatu zuan jaiera edo debozio aun-  
diarekin, eta eman zioten San Ignazioren  
erlikia, icutu zuan onekiñ ezur purruca-  
tuaren parajea eta berealashen sendatu zan,  
eta urrengo egunean oetic jeiki, eta ederki  
zebillen, besperan ibiltzeco gauza etzana.

Juan Leida Mallorcacoa gaitz aundi, eta

arriscocoan erori zan, au da, urdall edo es-  
tomaco gaitzean: amabi edo amairugarren  
egunean arriſcoa gueituric, encomendatu  
zan Jaungoicoari benetan, San Ignazioren  
irabazi edo merezimentuen bitartez: ona  
emen urrengo gauean esnaturiz lotatic, icusi  
zuan guela arguitasun aundiz beteric; eta  
deitzen ziola deadarca bere emazteari, esan  
zion: Ez nazu icusten sendatua San Ignazio  
gandic? eta eguna arguitu zuanean jaiki zan  
oetic indartsu, iñoren laguntzagabe eta bere  
soñecoac jantziric joan zan ariñ Compa-  
ñiaco Eleizara, ezkerrac ematera.

Beste mirari asco ta asco iracur leizke San-  
tu onen ezcribalarietan, batez ere Aita Bo-  
landos, Francisco Garzia eta Flubia-gan.

J. G. A.-co.





OSAGARRIA

AITA GOENAGA-C IZCRIBATUTACO

SAN INAZIO LOYOLACO-AREN

**BIZITZARI.**

---

BEAR BEZELA

---

TOLOSA-N:

**F. Muguerza-ren moldeteguan**

1886-garren urtean.

# OSAGARRIA

EDO

Jesus-en Compañia-ren izate ta bizimodua-  
ren berri, San Inazio-ren Beratziurren  
ta Cantategiarekiñ.

## I.<sup>go</sup> IZCRIBALDIA.

Jesus-en lagundi-co personen ta  
bizimoduaren berri.

**S**an Inazio Loyola-coaren berri zerbait ondo jakin ezkerro, Jaungoico gure Jaunac bere Eleizaren oneraco San Inazio-ren bidez mundu onetan aguertuazi, eta Jesus-en antzera, eramankizun ta garaimenez loratuazi zuen Compañia-donearen berri-ere, piñcacho bat badere jakitea, gauza pozgarriya, prochuzcoa, ta Jauna alabatzecoa izan bear dubela dirudi, cristau-on leyalentzaco.

Onetaraco lendabizi jakin bear deguna da *zer* dan ta *zertaraco* Eleiza Santan jarri zan JESUS-EN LAGUNTALDE au; *zer bizi-modu* erenbide ta legueac dauzcan berac alcarren artean eta besterentzaco; *zer echekada* ta *bizilecu* eta *zer* ta *zer persona mota* diran eta izan litezkean, bere leguedi ta bitezarde Aita Santubac onetsitacoen eran.

Au guzia, ara emen zeñ ederki azaltzen ta adirazten digun Aita Pedro Rebadeneira, Santu berarekin bizi izan zana, aren *bizitzaco* irugarren liburuan, 22-garren buruban:

Dio bada onela: «JESUS-EN LAGUNDIA Aita

Santu Paulo irugarrenac aurrenengo ontzat eman eta irmetu zuanean onela izendatuba; eta orobat beste ondorengo Aita Santu guztiac; ez da bacar-zale edo monje eta pralleen erligioa, ezpada eliz-guizon arautuena, Trento-co Batzarre santuac dion bezela. Ez da bere bizitza lanezcoa bacarric, soldaduzcoenaen guisan, ezta ere contemplazio edo gomuntazco utsa, bacarzalenaen modura, ezpada bietaracoa; au da obra espirituzcoen eguinkizuna, zeñetan diar duen eta dabillen, eta gomuntatzea, nundic eguite-on eta prutzcoa zortzen dan, beraganatzen dituen. Bere beguirakizun, asmobide eta ai dan gauza guzien zertaracoa, bere-bere eta lagunurcoaren salbamendi eta osotasuna dirade. Salbabidea aguinte santuen gordetzan dago, eta osotasuna Cristo gure Jaunaren on-esanai seguitzen. Bata eta bestea ordea caridadean alcartzen dirade; eta ala, bera da Lagunkida onec daducan neurtzeco araua edo erreguela, eta beste guztiya berdintzeco nibela.» Ontaraco artzen dituen bideac, caridadea irichitzeco lagundu al deizkioten danac dira, eta bere asmoetara igarotzeco guttiz egokiac; nola diraden, Jaungoicoaren itza noiz-nai predicatzea; ume eta jakiñezai cristau-dotriña eracastea; jendeari griña gaitzotetic igas-eguiten eta bertuteac beraganatzen, eta zer da nola onetaraco eguiñ bear duten, eta nola prochuz otoitz-eguiñ, eracus-

tea; Sacramentu santuac sarri ta jayeraz artu ditzaten azcortutzea ta eraguitea; gaiñoac bisitatzea; ondo iltzen laguntzea; presondegietan daudenai eta gaiñoteguetaco pobrei espirituzco laguntza ematea; alduen eran persona beartu eta arrastacacoai ere atseguin eta gozacaya eramatea; etsai diranac pakezen sayatzea; eta azkenic errukizco eguintza ta obra onetaz jardun, eta Jaungoicozco eguinkizun-mueta, edozein erresumaetan sortzen, gueitzen eta iraunazitzen lan eguita.

Obra-on eta eguimbide oyec guztiyac Lagunkida-co alcartegui edo colegioai ta echeai, bacoitzari beren modura, danai dagozkite. Badira alabaña beste batzuec, gureac iracasten ai diran laguntegui edo alcarteguiac beren-berekiac dituztenac; au da, letragauga ta jakintzaetan aritzea ta jardutea, zeñac alcartegui bacoitzac aldeakeanez, gramatica edo itz-jakindetic asita, Jainco-kindearen atzeneraño jarduten eta iracasten diran; onela bertutea eracutsi-onarekin alcarturic, obeto Cristau-Erligioaren eta ombide guztiraco amore ta onguinaya gaztegende bigun ta beraan itsaasi ta egotzitzeco. Au guzia eguiten du Compañiac, ez bacarric fede-osodunen erri, uri ta bastarretan; ezpada azcoz gueiago oraindic fede-ausle ta ga-been artean, ayenatuagoac edo jakiñonaren bearragoac oyec diradelaco; zerren bulda be-

rean esaten dan bezela, gure fede santaren alde eta zabaltzeraco batez ere, Jainco gure Jaunac bere Elizari bialdu izan dion.

Auñen da Lagundi onen eta bere eguitecoen asmo ta beguira-gaya; eta oyetatic iguerri leike ondo, eta ezagutu zearo, zembat bere bizileguea eta beste erligio beguiramen ori bera daucaten, eta era-bereco caridadezco obraetan diardutenac maitatu bear diraden. Bada, Santo Tomas-ec dionez, ambat da erligio bat bestea baño asotuagoa eta bitoreagoa, zembat eta batac obeagoac eta guziagocoac daduzcan bere asmo-azken eta beguiranza besteac baño; eta zembat eta obeac eta artesaguac dituen, bere asmo-azken oso ura irichitzeco bideac.

Jan-edanean eta jantziyan pobreen antze-co eta modu onezco bizi-modu berdiña daduca; ala ere, naicoa guizonaren argaltasun eta gure gorputzen beartasunari zor zayona emateco. Eta orregatic, ez du oso berekia duen jazkera jantzi-modu edo habituric, ezpada bizi dan tokico eliz-guizon prestuena da berea; eta onetan erligiosoai dagozten onestasuna, moduera ta pobretasuna beti azal ditezen, sayatzen da. Burusi capubill edo soñeco bereki eta berezituric Compañiac ez artzea izandu da, zergatic, leen esan degun bezela, ez dan pralleen erligioa, ezpada apaizena. Eta nola beartua arkitzen dan ezin gueyagoraño fede-ausle eta gende zabar gaizto galduakiñ



tratatzera, (bada oyec irabazteco batez ere Jaungoicoac bialdu zuben) eta zeñac gure dembora-aldi ta eunkida onetaco charkeri eta zabarkeriagatic, erligiozco jantziya gorrotatzen eta igüitzen duen, uste izan du eze, oi dan moduco edozeiñ jantzi onekiñ errezago eta obeto sartuco dala ayegana, beren obetutze eta laguntza gueyagoraco. Laztasun eta gorputzeco penitenzi edo illdura oi diranic ere, ayetara beren bitezardeac guziac beartzen dituenic ez daduzca; onola obeto beragana datozenetaco bacoitzaren izan-modu, indar, osasun eta edadeari beguiratzeco, eta guziac aldezaketen bizi modu bat bera, begui aurrean bacoitzac euki dezan; eta zergatic badauzcan ere gañera beste laztazun eta barruco carga ondo piñuac, zeñac campotic diruditen haño gueiñiago eta aundiagoac diraden. Ez ditu orregatic gaitzetsitzen, ezpada maitatzen eta alabatzen ditu gorputzeco laztasun eta damukizun minberatsu oriec, eta oyec berac beste erligio sagraduetan ere onetsitzen eta goitzen ditu aguitz; eta berac ere bear dituenean edo deizkionean, beraganatzen ditu ederki: eta au alaco moduz eze, edo aguintariac eman, edo mendecoac beren borondatez ayen oniritzi eta baimenarekin artzen dituzte. Au guzia ordea alaco bero ta gartasunarekin eguiten da, eze Jaungoicoaren graziagatic,

gay onetan escuratu eta neurriya marcatu bearrean arkitzen dirade.

Nola berebat Lagundi au aimbeste beargai eta aiñ obra asco eta animen salbazioraco lan bearrecoenetan ai dan, bere bizi-legueac escatzen dion guisan; ez dauca eguneroco araun-orduen coru-cantatzeric, beste erligioac oi duten bezela; bada, ez da corua erligioaren mamienco gauza, alaco moduan eze, bera bague, eziñ izan leikean; zergatic, Santo Tomas-ec chit ederki eracasten duen eran, sortu eta ipiñi leizke erligioac asmoascotaraco, eta errukizco eta jaierazco obra guisa-ascotaracoac, eta gauza on oyetan, coruric ezer gabe, diardutenac; eta izango lirake aiñ oso erligiosoac onelacoac, nola beste corua ere daucatenac, eta egunero Jaunari an alabanzac cantatzen ai diradenac.

Eta zergatic ere, aitatu ditugun eguinkizunetan bear bezela jarduteco, birtute ascochoren premia dan, eta gañera guiza-modu edo planta ona, eta ez ere nola-naico letrajakintza, eta guiza-arteraco aurkezte, modutasun eta graziya ederra eukitzea, eta ondo icusiya eta ots onecoa izatea; ez du beragatic artzen Lagunkida onec, usai gaištoco eta gaizkilleric iñor; ez da ere irauncorra izango dala ez deizkionic, ez orobat beste erligioen bateco soñecoa erabilli duenic; zerren opa du guztiz, bacoitzac Jaincoaren atotsiyari seguitzea, eta otseguña izandu zan bizi-mo-

duban irautea, eta beste erligio danac ere Eleiza santan egunetic egunera gueitzea eta loretzea.

Lau guizaseme-mueta dauzca. Edo letra-gauzetan adituac ta asco-jakiñac izanic, campoan icasi zutena Lagunkida onetan animeen oneraco balia-azi nai dutenac; edo beste, bizitza oneco eta naicoa jakiñarekin, profesatubai espirituzco lambideetan laguntzeco artzen diradenac; eta gazte trebe, burutasun oneco eta uste ederrecoac, letra jakintzan osotu ditezen; edo anaya laguntzalletacoen batzuec.

Nobiziadu edo probakizuneraco bi urte daude; sartzen diradenac zertara beartzen edo cuturtzen diraden leendic ondo icusteco, eta erligioac ere berac probaditzan.

Bi urteac igarota, Lagunkida-co langayetan jarduteco, letradun eta naicoa jakintsu eguin diradenac, beren bizitza bertutetuserekin ondo erantzun badute, profesio eta prescañi edo boto aguiricoac eguin ditzakete, edo bestela luzatzen dira gueroco; eta bitartean, besteac probakizun ondorean oi dituzten irurac eguiten dituzte; eta oyec ez dirade aguiricoac eta bicañenac, ezpada bacun edo simpleac, zeñakin Lagundi-yan irautera beren partetic beartzen diran: au-ordea libre gueratzan da, profesio aurrean bear bezela bizi izan ez diradenac, ala bearrean, bota ta

camporatutzeco; eta onela irtenac, artu zuten bete bear edo obligaziotic libre orobagueditzen dira: aguinduba dago alabaña bizilegue ta araubetan, ez iñor bota ta ayenatutzeco, ezpada beguirakizun ta arretaric andienarekin, ez da ere Lagunkida-n serbituagatic gañotu dalaco, ez eta ere beste bidez erremedia leizkean gauza ta guertakizun ariñen-batzuec-gatic; eziñ lezake ere iñor aguintaric, lenendari edo jeneralaz campora, zeñari bacarric au dagakion, urte bi ondoco prescañiac eguin dituenic bota.

Eche ta alcarteguiac daduzca. Echeac dirade batzuec probakizuneracoac, nun sartu-berriyac edo nobizioac diarduten eta probatzen diran; besteac profesoenac, zeñetan bearguille espirituzco artesac, compesioac aitu ta predicatzen, eta lagun-urcoen oneraco beste lambide santuetan ai diran. Alcartegui-icasizaleenac, eguimbide ayetaraco guero bearrac diraden letra-jakintzac irichitzeco, dira.

Profesatuen echeac ez dauzcate, eta eziñ ere euki leizkete ezer errenta-muetaric, naiz eliza ondo egiña eukitzeco aitzakiarekin, naiz bertaraco oi diran jantzi eta apaiñgarrietaraco; ez ta ere sooric edo campo-bazterric guzienic edo bacoitzarenic; bada bizi bear dute eguneroco amoina edo limosnarekin. Baña probakizunecoac, eta alcarteguiac guzi-entzaco errenta euki lezakete, sartu-berri-

yac errientzaco prochuzcoac izan baño leen, pišu ta eramangarri izan ez ditezen; eta icasdunac orobat, zer jantzi eta jan-edanaren conturic bague, dagozten jakinbideetan aurreratzen eta adituac irteten, menaz eta ziñez ta aztalca-bizian, saya ditezen.

Icasilanac bucatu ondorean, berriro biurtzen dira, burnia sutegaira bezela, eta gueiago ta gueyago garbitu, laundu ta piñdu ditezen, probakizun berriakin, sucatillu batean guisa, pasatzen dirade; eta onela jartzen dira egoki espirituzco laguntzalle moldatubac, edo profesatuac izateco; bada oyec Lagunkida dana zuzen-bidetzeco ta eraentzeco escubide osoa daucate; irtenic beretatic asistenteac edo ingurucoac, probinzialac, comisario edo cargudun-ordecoac, bisitatzalleac, eta buru-zailenena edo jenerala bera. Oyec iru prescañi aguiricoaz gañera, zeñetan erligioaren izatea dagoan, laugarren bat, aguiricoa orobat, eguiten dute misioetara gogoz joanic, Aita Santuari obeditzeco: eta au numbait ere dembora aiñ doacabeetan, zeñean ereje edo fede-ausleac aleguiñ eta arte guziakin eleizaren apostolu-escubide ta aguinteari contra ta gogor eguiten ai diraden, Jaincoaren asmakizuna izandu da. Bada prescañi onec dacazkien ontarteac alde batera utziric, zeñac bitezardearen laburkidan eta Lagundiaren sendokizuneco buldaetan aitatzen diran on andia da guztiz, erejeac lurreratu ta

deseguiñ nai dutena, au bera Aita Santuagana-  
naco menderatasun eta obeditzearekin sen-  
dotzea ta irmetutzea.

Eta beingoan betico Lagundiaren partetic  
etorkizuneco gaitzbideai ateac ichitzeco, eta  
erligioen zitz eta pipia diraden andinay eta  
gutiziaren sustrayac ebakitzeco, eguiten di-  
tuzte ere profesatuac beste prescañi bacun  
edo simpleac, aguinduric eta promesturic,  
ez dutela iñolaco moduz pobretasunaren ga-  
ñean bizilegheetan manutua dagoena, gueia-  
go lotu ta estututzeco baizic, mudatuco; ez  
dirala ere, naiz zuzen naiz zear, cargu edo  
aguinteric Lagunkidan bereganatzen sayatu-  
co; eta iñor onetan ai dala jakiñ ezkerro,  
azaldu eta aguiriazico dutela; eta beraz  
campora ere, diñatasun edo aguintzaric ezer,  
artara becatu larriaren azpian manutu ta  
beartutzen ezpaditu al-dezakeanac, (zeña Ai-  
ta Santua dan,) artuco edo bereganatuco ez  
dutela.

Ona emen bere eraen-moduba. Aguintari-  
lenen edo jeneral bat daduca, erligio guzia-  
ren buru-nagusi ta aita eguiten duena; eta  
ori probinzialen eta beren probinzialakin  
batzarre guzieracora joateco, billera probin-  
zietaco, bacoitzean izendatzen diraden bi  
profesatuen botoz autatzen da. Bizitza guzi-  
raco da bera; eta nola ere bere mendeco gu-  
zien berri, aditzera, eta jakiñbide zearoa da-  
ducan; alcarteguietaco erretore edo zuzenda-

riac, eche profesatuetaco lenencoyac, pobin-  
zialac, bisitalari, ta comisario edo mandata-  
riac, berac aukeratzen ditu. Onekiñ griña,  
atsecabe ta beste guertaldi okerrai oña ta  
berna kentzen zaye; bada jayo oi dira sarri  
buru ta aguintariac ascoren botoz eta boron-  
datez esleitzetic. Berekiya du alcartegui edo  
colegioen beguirakizun goyenecoa idukit-  
zea; norbait artu edo camporatu, profesaki-  
zuna eman, batzarre edo billera guzieracoa  
deitu edo atotsitu ta an buru-eguiñ, bere es-  
cuban dago; eta azkenic, gauzaric andi ta  
gueyenac bere nayera ta aukeran daude.  
Ezercho ere gaitzeraco balia ez dediñ ordea  
escubide aiñ andi onetzaz, danetan onena ta  
egokiena dala cargu onetaraco deizkiena au-  
tutzeco ipintzen dan contu ta arretaz gañe-  
ra, autatzalleac berac, esleiketa eguiñ ondo-  
rean, izendatzen eta ematen diozcate bere  
laguntza ta erabakietaraco laguntzalleac  
edo asistenteac esaten diranac; oec dira  
Compañi guztico persona eldu ta siñalatue-  
netacoac; eta izendatzen dute ere ostera bes-  
te bat, conturatzallea diotena, noren eguite-  
coa dan, ondoena edo bearra deizkion dana  
guztiya, berari bacarrean zearoago aditzera  
ematea.

Onetatic guztic, laburcho aitu baguera  
ere, argui eta garbi ezagutu leike bada, euki  
arrea Lagunkida-co bitezarde, eraentza ta  
bizimoduac beste erligioen chit antzeco ta

bat-eguiten diraden gauza mamiencoac asco, badauzcala ere beste batzuec alacoac ez diradenac, ta bai bere-berekiyac; zerren apaiz-erligioa dan aldetic, (Trento-co Eliz-Batzarre sagraduac aditzera eman zuan bezela) ordena bacarzaleetic berezitu bearra du, ayec berenez desberdiñac eta apaizen antzecoac ez diradenez. Eta izanic eguia orobat, danac asmo guziekico bat-bera daucatelarie, zeña Jesucristo gure Jaunaren onesanac, eta bere Ebangelio sagraduan eracusten digun osotasuna jarraitzea dan; ala ere, bacoitzac bere asmo ta beguirakizun berezia, zeñetara bere eguiteac ta obrac zuzentzen dituen, daduzcala. Nola ere bacoitzaren asmo-azken oyec, alcarren artean desberdiñac, ta ez bat-bera diraden; beragatic ayetaraco bideac ta erasokizunac ere, bestelacoac izan bear dute, eta ez berdiñac eta igualac; bada oyec ayecgandic beren araua eta neurriya artzen dute. Azkenic, Jaungoicoac bere beguiramendu goyenecoarekin gauza guztiyac eraenduric, premia ta bear-tasun guziei beguiratzen ederki daki; eta ala, bere Jaincozco iritziari deizkion garai eta sasoyan, nai eta gogo d'tuen erligio sagraduac bialtzen ditu, Compañi onec eguiten duen bezela, Eliza fede-osaduneco maasti zabal maite au landu ita laboratu dezaten.»

Auñe da laburkiro, aitatu guenduen 3.<sup>en</sup> li-




buruco 22.<sup>co</sup> capituluan A. Pedro Ribadeneira-coac escribitua laga zuena.

Bere demborañocoan onetsi ta sendoazi zuten guztia beren bulda aguiricoetan Aita Santu Paulo eta Julio biyac irugarrenac, eta predicatzalleen orden edo zuzenkidaco Gregorio amairugarrenac, Lagundi-berearen babes, gordetzalle eta onguille andia izanduzanac.

Eta gaurdañocoan orobat egñiñ izan dute modu batean edo bestean Jaincoaren Eleizaco artzai-buru izan diraden guztia, Clemente amalaugarrena berezitzen badegu; baña condaira zuzen arrazoizcoac argui eta claru beguien aurrean azaldu eta aguertu ditu, orduan Europa-co gorteetan zerabiltzkiten arte eta trampa-magañac, setalari oker zital artesac ezcitutic muguitzen zituztenac; aurrena buru-soberano zentzugabeac engañatzeco, eta guero Aita Santu gajo babes-gabearen biotza, bildur-azi menazatu ta naizutenera beartuazitzeco.

Eunkida emereitzigarren onetan bertan, Pio VII-garrenan 1814-ean piztuazi eta bere oñean jarriazi zianetic, maite, alaitu eta alabatu izan dute asco Aita Santu Erromacoac Lagundi au; eta oyen artean bere alabantza ta amore siñaleric aundienecoac eman diozca, egun oetan bertan, liburu lau bucatzen ai guerala, Leon XIII-garrenac 1886-co Uzta-ren 13-an arguitaratu duben BRBBE

edo izcribucho baliozcoan. Onen bidez alabaña, Cristo-ren oñordeco Aita Santuac ipintzen du argui ta garbi JESUS-ENCOMPANIA, Clemente XIV-garrenac baño leen zeducan izate ta leguebide ber-berean, guerozco mesede ta guzi; izcribaturic beste gauza eder ascoren artean, emenchè euskeratzen ditugun itz cec: «Gure Letraldi oec izan ditezela orain da beti euki diogun amore-siñaletzat JESUS-EN LAGUNDI arguidotarrari, izanic bera aiñ zaletasun aundicoa Gu ta Gure Leenagocoenganaco, guizon santu ta jakintsuen gloria mallaric goienecoan izan dutenen iñude ugaritsua; eracaste sendo ta osasungarriaren jatorri ta iraupena; eta jutziziagatic jazarriric biurri ta gogorrenac eraman arren, berotasun alai eta bioztasun garai-eziñalekiñ Jauna-ren maastiyan beti-beti lanean diardubena.»



2.<sup>en</sup> IZCRIBALDIA.

—  
LOYOLACO

AITA SAN INAZIO-REN

BEDERATZIURRENA,

AITA AGUSTIÑ CARDABERAZ-EC EGIÑA

—  
Santuaren aldare edo iduriren baten aurrean jarri, edo fede biziz consideratu zure aurrean dagoala Santua, ta siñatu ta *Nere Jesucristo Jauna etc* esan, ta guero

**Egunero-co Erregua.**

=  
Aita San Inazio gloriosoa, Jesus-en Compañiaren Fundatzallea, ta nere Aita maitea: baldin Jaungoicoaren gloriaraco, zure onraco, ta nere probechuraco bada, nic alcantzatzea Bederatziurren onetan escatzen dedan grazia, irichi zadazu Jaunagandic, ta esperen, nere escari au zuzen ezazu, ta nere pensamentu, itz eta obra danac, zure biotzeco naitasun guztira, zeña beti zan Jaungoicoaren gloriaric aundiena.

## Lenengo Eguneco Erregua.

Nere Jesus guziz ona, zue Fedeco Misterio sagraduac agueru zinduen, ta obra on guzien, ta salbazioaren zeruco sustraya bezela, gure biotzetan jositzea nai dezuna. Nic escaintzen dizut, Aita San Inazio-ren birtute guzien artean, arene Fede argui ta bizia, zenaz liburu santu guziac galduco baziran ere, diran zure Misterio guziac Santuac sinistuco zituen, ta mundu guztiari zure Fede ta leguea eracutsi nai zion. Arren indazu, Jauna, zure legueco guziac ondo jakin, ta sinisteco, ta obeto gordetzeco bear dedan grazia, eta Bederatzi-urren onetan escatzen dizudana, zure gloriaraco, Santuaren onraraco, ta nere oneraco baldin bada. Amen.

*Emen Irutasun guziz Santari Aita San Inazioc zion amorioaren erreberenzian, iru Aita gure, iru Abe Maria, ta Gloria, errezatzen dira: eta guero*

## Eguneroco Erregua.

Aita San Inazio, Santu andia, Jesus zeruco Erregueac bere Compañiaren Capitan egin zinduen, eta cargu onec escatzen dituen Aingueru guzien birtuteaz bere gloriaraco, bear zan bezela jantzi, ta apaindu zinduen. Chit atsegin det, nere Santu maitea, zure animaco birtute, esan al baño andiago-

en edertasun, ta gloriaz; ta deseaten det, mundu guziac zu ondo ezagutu ta amatzea. Ta orregatic, arren, alcanza zadazu Jaungandic, zure birtuteai jarraitzeko, ta zuc bezela, Jaungoicoa-ren leguea, nere estaduan ondo gordetzeco grazia, zu bitarteco zaitudala, Ama Birjiñaren amparoan, ta Jesus guziz gozoaren Biotzean, berac nai duenean, eriotza on bat logratzeko: ta Bederatziurren onetan escatzen dizudan mesedea, Jaungoicoaren gloriaric andieneraco baldin bada. Amen.

*Emen fede, ta confianza aldezun andienaz Santuari, nai dezuna, ezcazayozu: ta guero esan*

### **Eguneroco Santuaren Erregua.**

Nere Jaungoico guziz misericordiazco, ta emallea. Bada ni naizan ta dedan guztia, zugandic det: esker onecoa nolerebait izan nai det: eta Aita San Inazioc bere biotzean, ta oan beti zeucan escaintza onekin, zuc eman didazun guzia biurtu, eta zuri consagratu nai dizut.

### **San Inazio-ren eskeintza Jaunari.**

Artu eta zeregana zazu, Jauna, nere libertade guztiya, nere oroimena, nere adimena, eta nere borondate guzia, nic dedan ta euki nezakean guzti-guztiya, zuc eman ziñada-

zun; zuri; Jauna, atzera ematen dizut; dana da zurea, eta guziaz nai dezuna eguin. Ecatzu zure amore ta graziya, bada auñe det naicoa. <sup>1</sup>

*Añã.* Similabo eum viro sapienti, qui  
ædificavit domum suam supra petram.  
ꝰ Amavit eum Dominus et ornavit eum.  
R. Stulam gloriæ induit eum.

### OREMUS.

Deus, qui ad maiorem tui nominis gloriam Propagandam, novo per Beatum Ignatium subsidio, militantem Ecclesiam roborasti; concede, ut ejus auxilio et imitatione certantes in terris, coronari eum ipso mereamur in cælis. Per &.

---

*Bigarren egunean ta besteetan, orobat guzia eguiten da, ezpada bigarren erregua, eta da urrengetatic bat.*

### Bigarren Eguneco Erregua.

Nere Jesus guziz ona, zure esperanza, zure adiskideai munduco ondasun guziac, ta ezeren falta gabe, bear zuten guzia, promestu ta aguindu ziñeztena: nic eskeintzen di-

---

1. Irurean eguneco barcamena egunean beingo au biotz damu onezco ta jayerazceaz errezatzeagatic (Leon XIII-e Mayatzaren 26-n 1883-n.)

zut Aita San Inazio-ren birtute guzien artean, aren Esperanza guzizco sendo, zугan zeucana, zeña munduco persecuzioric andienetan aren biotzeco aingura segurua beti izan zan. Arren indazu, Jauna, nere salbazioaren esperanza andi bat, zure grazian ondo eguiñicaco nere obra onetan seguratua, ta nere estaduan, u obeto serbitzeco, bear ditudan ondasunac: eta Bederatzi-urren onetan escatzen dizudan grazia, zure gloriaraco, Santuaren onraraco, ta nere oneraco baldin bada. Amen.

### **Irugarren Eguneco Erregua.**

Nere Jesus guziz ona, zure amorio santua guziori aimbeste aguindu ziñiguzuna, zure mandamenturic andien, ta bearrena bezela, Zu gure biotz, ta anina, ta indar guztiaz amatzeco. Nic escaintzen dizut Aita San Inazio-ren birtute guzien artean, aren zurekico amorio chitez irazekia, Serafin baten guisan Santua erretzen zuena, ta zerura joatea baño ere, Zu obeto serbitzea nayerazo ziona. Arren indazu, Jauna, zure amorio santu orren chingar bat, Zu nere biotz guztitic, ta gauza guzien gañean oraiñ ta beti amatzeco, eta Bederatzi-urren onetan escatzen dizudana, zure gloriaraco, Santuaren onraraco, ta nere oneraco baldiñ bada. Amen.

### **Laugarren Eguneco Erregua.**

Nere Jesus guziz ona, gure lagun-urcoen caridade, ta amorioa zure escolacicasle, ta adiskideen señaie ziertoa bezela, eman, ta aguindu diguzuna, ta zureac nor diran, onetan ezagungo dala diozuna; nic escaintzen dizut Aita San Inazioren birtute guzien artean, aren caridade guztiz bero, ta aundia, munduco guziac zure amoriozco garretan erretzen icusi nai zituena, animac salbatzeco aimbeste eguin, ta eramaten zuela. Arren indazu, Jauna, Santuaren antzeco caridade eguiatzcoa, nere itz, eta ejemploaz, animen salbazioraco aleguin guzia zure amorioz eguiteco: eta Bederatzi-urren onetan escatzen dizudan mesedea, zure gloria, Santuaren onra, ta nere oneraco baldin bada. Amen.

### **Bostgarren Eguneco Erregua.**

Nere Jesus guziz ona, zure pazienza, doctriña, ejemplo, ta bizitzaco trabajuetan, eta zure Gurutze Santuarena, gure zeruraco bide errealaz bezela, eracutsi ziñiguzuna: nic escaintzen dizut Aita San Inazioren birtute guzien artean, aren eramankizun miragarria, zure amorioz aimbeste carzela, cate ta persecucio aiñ pozic eramateco, non ta zion,



mundu guziac zituen cateac baño gueyago zugatic eraman nai zituela: arren indazu, Jauna, zure espiritu, ta indarra, nere bizitzaco zuc nai dituzun neke, ta pena, pobreza, ta gurutzeac ondo eramateco, oriekin zure ondoren, zeruco escallera bat eguiñ dezan; eta Bederatzi-urren onetan escatzen dizudan mesedea, zure gloriaraco, Santuaren onraraco, ta nere oneraco baldin bada. Amen

### **Seigarren Eguneco Erregua.**

Nere Jesus guziz ona, zure amorioz, Orazioaren zeruco Ejerzizioa zure bizitzan eracutsi ziñiguzuna, lurrean guc zeruco bizia eguiteco, eta andic bear degun guzia erregutuaz eracartzeco; nic ofrezitzen dizut, Aita San Inazioren birtute guzien artean, aren zeruco, ta betico orazioren ejerzizio, Zugandic aiñ ederki icasi, ta mundu guziari eracutsi ziona. Arren indazu, Jauna, gauzaric onen, ta bearren au, zeña dan, Zu biotzeco erreguaz billatzea, ta arkitzea, ta Zuri beti, bear dedana, orazioan ondo escatzea, ta Bederatzi-urren onetan deseaten dedana, zure gloriaraco, Santuaren onraraco, ta nere oneraco baldin bada. Amen.

### **Zazpigarren Eguneco Erregua.**

Nere Jesus guziz ona, zure bizico pauso,

ta eriotzaco pena, ta tormentuetan, nere pe-  
catuen penitencia eguiten, ta nere bizioac  
mortificatzen eracutsi ziñidana. Nic ofreci-  
tzen dizut Aita San Inazioren birtute guzien  
artean, aren arrigarrizco penitencia, ta griña  
char guziaz guerra bizia eguiteco espiritu, ta  
balentiya. Arren, indazu, Jauna, nere culpa  
aundiaz dogokien eguiatzco penitencia egui-  
teco espiritua, ta zure graziaz nere bizioac  
illcortu, ta erremediatzeco bear dedan indar-  
ra, eta Bederatzi-urren onetan escatzen di-  
zudana, zure gloriaraco, Santuaren onrara-  
co, ta nere oneraco baldin bada. Amen.

### **Zortzigarren Eguneco Erregua.**

Nere Jesus guziz ona, munduan jayo zi-  
ñanetic gurutzean ill arteraño obediencia  
mundo guziari eracutsi ziñiona. Nic ofrezi-  
tzen dizut Aita San Inazioren birtute guzien  
artean aren obediencia aiñ guztizcoa, non ta  
bere burua, ta bere Compañia guzia, zure  
Erromaco Bicariorari consagratu baizion, gu-  
zian ta beti, zure borondatea obeto eguiteco.  
Arren, indazu, Jauna, nic ori bera, Santuac  
bezela eguiteco, bear dedan espiritua, ta ne-  
re burua ucatu, ta zure borondate gozoa e-  
guiteco grazia; baita ere Bederatzi-urren one-  
tan escatzen dedana, zure gloriaraco, San-  
tuaren onraraco, ta nere oneraco baldin ba-  
da. Amen.

## Bederatzigarren Eguneco Erregua.

Nere Jesus ona, zure Ama guziz Santa, San Juan icasle maiteari encomendatu, ta zure ta gure amarie onena onratzen, serbitzen, ta amatzen eracutsi ziñiguzuna. Nic escaintzen dizut Aita San Inazio-ren birtute guzien artean, aren biotz guztico Ama Birjinā zure Amarekico debozio, ta amorio paregabea, zeñarekin ejerzizioac escribitzeco zeruco guidari ta Maestra au merezi izañ zuen. Arren, indazu, Jauna, zure Amaren eguiazco debozioa, ta amorio, zeruco escojituen siñale dana; nic zu, ta bera oraiñ ta beti, biotz guztitic amatzeco, ta Bederatzi-urren onetan escatzen dizudana, zure gloriaraco, Santua-ren onraraco, ta nere oneraco. baldin bada. Amen.



III.<sup>en</sup> IZCRIBALDIYA,

San Inazio-ren Cantateguichoa.

1521

*Graziyaren garaimena San Inazio-gan*

—  
1

Egun da gabaz zauriyetatic  
Chirriyan odol berriya,  
Oyan zegoan galay Inigo  
Iya illtzeco etsiya:  
Ara nola zan bere orduco  
Izketa baten erdiya:

2

»Berriz Iruñ-a guazen, bear bada:  
»Etzat faltaco gogoric:  
»Elbarri-arren nere belaun bi,  
»Onorea det osoric:  
»Nere onraren maitatunayac  
»Ez du izango ondoric.

3

»Onra gueyago nic izango det  
»España-gatic iltzean:  
»Nere izena azalduco da  
»Guerrari danen gañean:  
»Guazen bai berriz peliatzera;  
»Guazen aurrera aidean.

4

- »Ebaki, ebaki ezur coscorrac,
- »Botac obeto sartzeco:
- »Eguin nai dana zanco biyetan,
- »Leen bezin zuzen jartzeco:
- »Ekin cupira-gabe; zai nago
- »Miñ gogorrenae artzeco.»

5

Onelacoše pensakizunaz,  
Ezin pasaric dembora,  
Libururen bat iracurtzea  
Etortzen zayo gogora;  
Besteric ez-ta, Santuen on bat  
Ecartzen zayo ondora.

6

- Iracurtzen du... Urrengo gauban  
kezcac dabilzki buruban:
- »¿Zer prochuz, dio, nere urteac
  - »Igaro ditut munduban?...
  - »¿Balioco dit guizonen onrac
  - »Eriyotzaco orduban?...

7

- »Nere barruban zer pasatzen dan,
- »Neroni nago arritzen;
- »Oi ez bezela, muguimentu bat
- »Biyotzean zait asitzen,
- »Argui-errañu zerucoi on bat
- »Adimentuban arguitzen.

8

- »Ez da guizona, ez da guizona
- »Betico jayo lurrera:
- »Mundu zoro au utzi dezadan;
- »Guazen birtute-bidera:
- »Cristau bizitzac eramango nau
- »Jaincoaz beti poztera.

9

- »¿Zer balio dit mundu osoa
- »Nere mend an jartzea,
- »Aberastasun, onore, atseguin
- »Nai diran danac artzea,
- »Ori guzia izaten bada
- »Nere animaren caltea?

10

- »Mundubagatic asco ein badet,
- »¿Millaca bider gueyago
- »Santuben eran Jaincoagatic
- »Eguin-bearraz ez nago?
- »Bai, nere JESUS, zure graziyaz
- »Alchatuco naiz gorago.

11

- »Zure soldadu nazu gaurtandic
- »Munduban naizan artian,
- »Zure gloria beti beguira
- »Luzbel-darrekin pelian:
- »Lagun bai, JESUS, lagun, MARIA,
- »Bizitza berri onian.

12

«Lagun bertatic, izan dezadan  
»Becatu damu berdiña,  
»Eta JESUS-EN izen daraman  
»Lagun talde bat eguiña,  
»Zeron mesedez irichi-arte  
»Zeru goyenen erpiña.»

13

Euscaldun maite biyotzecoac,  
Inazio-ren aldean,  
¿Ez gabiltza gu oraindic otzac  
Zerubetaco bidean?...  
Ea bada gaur, bere antzera  
Danoc suspertu gaitean.

14

Oroi-gaitezen, jayotzaz ama  
Naiz izan euscal-erria,  
Zeruba dala gure dierri  
Betico bizi-tokia:  
Animac garbi, zuzen dezagun  
Zeru-aldera guztia.

## SAN INAZIO-REN

### Zeruratzeari.

1. Izarrez-izar, euzkiz-eguzki,  
Milla munduren artean,  
Aingueru-talde soñulariyac  
Zabaltzen dira batean.

2. Zillar-zurizco, ta urre-gorrizco  
Distiadura iñuriric  
Soñeco ederrac daramazkite  
Aizeac apaiñ jarriric.

3. Dijoaz egan pozez gañezca  
Astindurican egalac,  
Murguildurican beren biyotzac  
Betico atseguin-ujolac.

4. Oyen erditic gure Inazio  
Bere jargoira zanean,  
Bazter danetan pesta gueitu zan  
Zerutar galay artean.

5. Bere garaipen paregabea  
Cantatzeari benetan  
Ekin zioten, danac urturic  
Jaincozco amore garretan.

6. ¿Nun dira lurrac? ¿Nun dago Erroma?  
¿Nun andizki goi erpiñac?  
Uts ezerezac dira Zeruan  
Mundu guzico atseguinac.





LOYOLA-CO A. S. INACIO CANTAURI-TARREN

BITARTECOA.

CANTAERA

Iru berso-modu ta bi cantalditan.

1

¡Cantauri-tarren gordetza dezun  
Zeruco Aingueru galaya!  
Eman idazu zeruco izcuntza,  
Leunduric mingañ alaya:  
Eldu da noizbait Ignazio-ri  
Cantatutzeco garaya.

Zatozkit ariñ zeru urdiñetic,  
Urraturican izarrac;  
Zure ega zillar-urrezcoetan  
Artuco ditut indarrac;  
Zurequin naitut jirabiratu  
Mundu guzico baztarrac....

Onela erregu bero-beroan  
Gora nengoan beguira;  
Baña bat-baten mempetu nintzan  
Lo gozo baten eztira;  
Ta aldatu nintzan, (ezdakit nola)  
Aingueru-biren erdira....

Zeru-zaldunac aguertzen dizkit  
Erroma-co Uri parean  
Lur-ichasoen lau alderdiyac;  
Soñu gozoen antzean

Išurtzen dizkit itz-aldi oec  
Gure Iñigo-ren gañean.

- »Jainco gure Jauna-ren gloriatzallea
- »Loyola-co Ignacio da paregabea;
- »Or Erroma-n gorputza, anima an Zeruban
- »Bere izen ta eguiñac an ta emen munduban
- »Dirade otsandicoac..... Onari Jaincoac
- »Beti dizca ondasun neurriz gañezcoac,
- »Iñigo-c diyo betico *Jaunari Gloriya*»
- »Aren Glori-andiraco dauca Lagundia.
- »Zeña *Jesus* duela buru, ai da aurrena
- »Muduz-mudu zabaltzen *Jesus-en izena*.
- ».....Ordutic guerra dabill munduban gogorra,
- »Jaiki zalaco contra deabru galducorra:
- »Infernu ta gaiztoac Zeru ta Elizari
- »Contra ai dira irten navez noizbait garailari.
- »Cantauritar-erriya, ez izan bildurric,
- »Done Ignazio-ri menaz jarraituric
- »Au dezu zeruetan Bitarteco artuba;
- »Seguituric berari zera salbatuba.»

Itz-azken oyec esan orduco  
Odey arguizco leunetan  
Irristaturic arguitu guiñan  
Urola-inguru ederretan.

Emen berriro zabaldurican  
Arrosazco espaiñ gorriyac  
Eraso zidan esan-oyequin  
Zoraturican mendiyac.

2

- »Loyola-ren izena darabilte aizeac
- »Darabilte guizonac, darabilte umeac;
- »Bedeincatzen da izen au usay gozo artean
- »Ebro, Nilo, ta Ganges, ta Amazona aldean.
- »Cantabria-co mendi tontor altubetan

- »Arcaitz tartean eta ibar-zelayetan
- »Loreric-ederrena nola oi dan atara,
- »Aldatutzeco Erregue-loreteguitara,
- »Ala bereganduric Iñigo Zalduna
- »Loyola-tic Jaincoac, eguin du ezaguna.
- »Andiya bada Iñigo, Iruña gordetzen.
- »Guztien gañecoa da Jauna serbitzen....
- »Orri beguira beti, Euscaldun prestubac,
- »Zeron erri gordetzen, ta izaten santubac.
- »Ignazio-ri jarrairic goitu diradenac
- »Dituzute inguruan guizon arguienac:
- »Araba, Naparroa, Guipuz ta Biscayac
- »Arguidotar semetan dirade emancoyac.
- »Araba zabalean Ayala ta Olabe,
- »Galin, Vela, Guebara, ta eun gueyago daude.
- »Jabier Naparroa-n, Uriz ta Azpilcueta....
- »¿Baña, milla izenentzat nundic degu beta?
- »Bacarric alde onetan Bizcaira beguira,
- »Ichasoenco azañetan or aguiri dira
- »Machin Mungui, Arbolancha, Bilbao-tar ona,
- »Errecalde, Arteita, Mello Bertondona....
- »Iñigo-ri jarrairic santutasumean,
- »Azaltzen dira Landa ta Urriola batean:
- »Zumarraga, Zarate, Isunza, Jauregui,
- »Berrio-Ochoa eta Mendo Guisategui.
- »Guipuzcoa chiquiyan guizon andienac,
- »¿Ez dira diralaco Loyola-en urrenac?...
- »Elcano, Andia, Legazpi, Okendo, Larrea,
- »Urbietta, ta Idiaquez, Churruca gendea,
- »Beste millaca utziric, lur ta ichasoetan
- »Ospatsu izan dirade milla baztarretan.
- »Santu izaten Japon-en San Martin, eta Ingre-n
- »Lizardi Azteazu-coa, Anchieta Brasil-en,
- »Errezil-go Erkizia, ta Oyarzun-go Isasa,

- »Araoz, Cardaberaz, ta Aita Berreyarza: .  
»Baña, copuratzea da errezago izarrac  
•Campoco bedar eta ichasoco ondarrac,  
»Guizadi arguiya baño Cantabria-rena,  
»Zeñ guzien artean da Ignazio goyena,  
»Nola odei alderonz copeta alchaturic,  
»Loyola-Elizac dauzcan echeac beturic,  
»Edo Euskaldun-erraldoy Joakin Alzo-coac  
•Nola gaintzen zituen jende Lapongoac.  
»Jarraiyozte beti, Euskaldunac, orri;  
»Bere antzera biziric zeruraño corri;  
»Berari erregu bero, ta aldare berriyac,  
»Berequiñ gozatzeco Zeru-jaureguiyac»

Lilluraturic arkitzen nintzan

Aiñ gauza andiac aditzen,  
Baña, ara nola zeru-zaldunac  
Asitzen diran egatzen,  
Farra gozoan, esanaz, «*agur*».  
Zeruronz zaizquit goratzen,

Euzki bi eguiñic izar-artetic  
Dijoaz, botaz lurrera  
Argui-ichaso bat; ta iduritu zait  
Ni ote-nijoan batera;  
¡Baña, naiz gueldi mundu tristean,  
Juan gabe zeru ederrera!....

Arren, guizonac, eguiñ aleguiñ  
Igo dezagun zerura:  
Ara igotzeco, ta ez besteraco  
Jayo guiñaden mundura;  
Ill-arte guerra pecatubari:  
Guazen Santuen lecura,

(ALABIZ)

## AITA SAN INAZIO-RI

### *Erreguxco Cantachoa.*

¡San Inazio  
Euscaldun danen  
Bitarteco onen

Zerana!

Igo bedi gaur  
Oso sutuba  
Nere erreguba

Zugana.

Odeyaz gora  
Euzki arguiyac  
Ta izar guziyac

Pasaric.

Escale gaude  
Zure aurrian  
Zeru erdian

Jarriric.

¡San Inazio  
Loyolacoa!  
Aita gozoa

Zaitugu.

Gure alde, bai,  
Bear dezu ari:  
Eguiñ Jaunari

Erregu.

Beguirra, nola  
Mundu tristean  
Neke artian

Gabiltzan.

Zeñ gure contra  
Etsai-arruac  
Amorratuac

Dabiltzan.

Zure laguntza  
Izan dezagun  
Garay ditzagun

Etsayac.

Escayozcatzu  
Jaungoicoari  
Gutziz ugari

Graziyac.

Graziya oyec  
Azcar isuri;  
Betor, bai, guri

Lasterren;

Intz eder nola  
Goitican bera  
Lurra poztera

Datorren.

Jardungo guera  
Indar-oyekiñ  
Etsai danekin

Gogorki.

Danoc irtenic  
kistau anayac  
Garailariyac

Ederki.

Garailariyac  
Emen munduban  
Guero zeruban

Jarteco.

Zere ondoan  
Jauna maitatzen

Eta gozatzen

Betico.



SAN INAZIO LOYOLACOA-REN  
Ibilneurria edo marchea.

LENENGO PARTEA.

(Batena)-Inazio gure Patroi andia,	( <i>Birena.</i> )—Ez dauca Fedea
(Guziona.) Jesus-en Compañia	Ez cristau nereac, Ez dauca bildurric
Fundatu	Iñungo aldetic:
Eta dezu armatu:	( <i>Guziona</i> )—Inazio or dago
Ez da ez etsairic	Beti ernai dago
Jarrico zatzunic	Or dauca gendea
Inolaz aurrean	Chit garaitzallea
Gaurco egunean;	Bandera alchaturic
Naiz betor Luzifer deabrua	Guerran azaldu nairic.
Utsiric infernua. ( <i>Berriro-Inazio etc.</i> )	( <i>Birena.</i> )—Gau eta egun
Zure soldaduac	Guztioc pakea deza- gun
Dirade aingueruac, Zure guidaria	( <i>Guziona.</i> )—Beti gau eta egun.
Da Jesus andia, Garaitu dituzte zure anayac	( <i>Berriro.</i> )—Zure sol- daduac
Etsayac.	etc.

BIGARREN PARTEA.

<p>(<i>Batena</i>)--Inazio bil- du dezu munduan (<i>Guziona</i>)--Arritzeco moduan Jendea Fede biziz betea, Jende jakintsua Eta indartsua, Beti dabillena Guerretan aurrena, Elizaren etsayac bi- llatzen, Topatu ta garaitzen. (<i>Berriro</i>.--Inazio bil- du, <i>etc.</i>) Dituzu anayac Guerra eguin nayac, Da oyen leguea Etsai garaitzea; Oyec ditu bere gorde tzalleac</p>	<p>Fedeac: (<i>Birena</i>)--Dirade eza- gun, Dabiltza gau ta egun Europan, Asian, Africa, America-n; (<i>Guziona.</i>)—Legorrez ta itsasoz Dijoaz ta datoz, Dabiltza nekean Indio tartean, Edo Erregue echean Jesus-en izenean (<i>Birena</i>)—Beti pelean Bizitzac dirauben ar- tean (<i>Guziona</i>)—Beti, beti pelean. (<i>Berriro</i>—Dituzu ana- yac <i>etc.</i>)</p>
--	--





IRUGARREN PARTEA.

<p>(<i>Batena</i>)--Inazio, di- ra zure anayac</p> <p>(<i>Guziona</i>)-Ichas-gui- zon arguiac</p> <p>Arraunac</p> <p>Bogatzen dakitenac:</p> <p>Pedro-ren ontzia</p> <p>Badago ertzia</p> <p>Arroca tartean</p> <p>Egunen batean,</p> <p>Bertatic botean dira sartzen</p> <p>Eta argana juaten.</p> <p>(<i>Berriro</i>=Inazio di- ra <i>etc.</i>)</p> <p>Socakin loturic</p> <p>Arroken artetic,</p> <p>Baldin bada etsairic</p> <p>Oyec garaituric,</p> <p>An daramate ontzia cayera</p>	<p>Leorrera:</p> <p>(<i>Birena.</i>)—Naiz izan ecaitza,</p> <p>Bogatzeco gaitza,</p> <p>Eta baguen goyac</p> <p>Naiz busti odeiyac,</p> <p>(<i>Guziona</i>)—Arraunac arturic,</p> <p>Alcar alaituric,</p> <p>Botean sarturic,</p> <p>Bizitzaz azturic</p> <p>¡Boa boa! deiric,</p> <p>An dijoaz cayetic</p> <p>(<i>Birena</i>), — Bultzeaz killa,</p> <p>Pedroren ontzia-ren billa,</p> <p>(<i>Guziona</i>)—Beti bul- tzeaz killa.</p> <p>(<i>Berriro.</i> Socakin lo- turic. <i>etc.</i>)</p>
---	--



SAN INAZIO-REN MARCHA BERRIA,  
JOSÉ INAZIO ALDALUR APAIZ, JAUNAC  
SOÑUZ IPIÑIA.

---

CANTAURREA.

¡Loyola-co Inazio  
Euscaldunen Aita!  
Ekiñ dragoi Luzbel-i  
Bertatic despita.  
-Zure garaimen cantac  
Gaurdandic asita,  
Sion-en aitu-bitez  
Zerua irikita.

CANTALDIAC.

¡Eliz Ama Santa  
Danon arguiya!  
Iñildu negarrac  
Agertu alaya;  
-Janzi ezazu berriz  
Apainduriya,  
Coroituric lorez  
Zere iduriya.

Zeradela Erreguiñ  
Edertasunez,  
Parre, zorion ta  
Galaitasunez.  
-Goza- ezazu Jauna  
Deadar biguñez,  
Goza- ezazu, ez iraun  
Samiñtasunez.

AZKENA.

Bere naigabeakin  
Biotzac suturic,  
Inazio andiari  
Guazen jarraituric.  
-Segi zaiogun menaz  
Ezpatac arturic,  
Egan bezela guazen,  
Alcar alaituric.

# ARKIBIDEA.

Orriya


<b>Lendabico burua</b> —San Inazioaren jayotza eta bizimodua Jaungoicoagana biurtu zan arteraño. . . . .		4
II.	Nola ecarri zuan Jaungoicoac bere ezagüerara munduco utzun edo bandedeatatic. . . . .	4
III.	Nola Loyolatic irten eta joan zan Catalanian arkitzen dan Ama Birjiña Monserratecora. . . . .	8
IV.	Nola eldu zan Monserratera eta emen aldatu edo mudatu zituan bere soñecoac. . . . .	9
V.	Manresan eguin zuan bizimodua. . . . .	11
VI.	Nola Jaungoicoac sentierazo ziozcan conzienziaco escrupulo edo kescac. . . . .	15
VII.	Nola Jaungoicoac eman ziozcan animaco contentu aundiac tentazioen ondoren. . . . .	16
VIII.	Nola escribitu zuan dembora onetan Ejerziziotaco liburua. . . . .	18
IX.	Nola joan zan peregrinazioan Jerusalem-a. . . . .	19
X.	Nola bisitatu zituan Jerusalem-go toki santuac. . . . .	20
XI.	Nola etorri zan España-ra. . . . .	21
XII.	Nola asi zan icasten latineco gramatica . . . . .	22
XIII.	Nola joan zan Alcalá-ra Filosofia icasteco asmoarekiñ eta emen izan zituan eramankisunac. . . . .	25
XIV.	Nola joan zan icastera Paris-co Unibersidadera. . . . .	27
XV.	Bere icasikisun demboran, Paris-en	

	Inazioe igaro zituan nekeac eta aeta- tic atera zituan frutuac. . . . .	28
XVI.	Nola izandu zan perseguitua carida- dezeo eguinkisunetan ibiltzeagatic. .	50
XVII.	Nola Paris-en bildu zitzaizean lagunac.	51
XVIII.	Nola etorri zan Paris-tic España-ra eta emendic joan zan Italia-ra. . . .	54
XIX.	Nola izandu zan salatu edo acusatua Benezia-n eta arguitu zan bere inozen- zia edo errueza. . . . .	58
XX.	Nola etorri ziran Ignazioren lagunac Paris-tic Benezia-ra. . . . .	59
XXI.	Nola banatu ziran Benezia-co errietan animen oneraco lambideetan jardute- co. . . . .	42
XXII.	Nola aguertu zitzayon JESUS Inaziori Erromara-co biajean eta nola emendic artu zuan JESUS-EN CONPAÑIAC bere ize- na. . . . .	45
XXIII.	Nola Inazio eta bere lagun guztiac baturic Erroma-n erabaki zuten fun- datzea JESUS-EN COMPANIA. . . . .	45
XXIV.	Ignazio eta bere lagunuen contra Erro- ma-n alchatu zan persecuzioa eta onek izandu zuan atzena . . . . .	48
XXV.	Ignazio eta bere lagunuen arazoac Eli- zaren alde Erroma-n eta Erromatic campa. . . . .	55
XXVI.	Nola Aita Santu Paulo irugarrenac confirmatu edo ontzat eman zuan Compañia. , . . . .	54
XXVII.	Nola izandu zan Inazio autatua JESUS- EN COMPANIA guztiaren buru. . . . .	56

XXVIII.	Nola asi zan Ignazio Compañia gobernatzen. . . . .	57
XXIX.	Ignazioc Erroma-n eguin zituan obra onac. . . . .	59
XXX.	Erromatic campora idiki zituan Colejioac. . . . .	60
XXXI.	Nola Ignazioc utzi nai izandu zuan Compañiaco Generalazaco cargua eta here tagunac etzioten consentitu. . .	61
XXXII.	Nola ill zan Ignazio Erroma-n. . . .	65
XXXIII.	San Ignazioren birtuteac.	66
	1. Orazioco doaia . . . .	66
	2. Lagun-urcoentzaco caridadea. . . . .	67
	3. Bere umiltasuna. . . .	69
	4. Bere griñen ildura edo mortificazioa . . . .	71
	5. Bere itzetan neurria eta indarra. . . . .	72
	6. Bere errukitasuna eta biguntasuna . . . .	74
	7. Bere animaco indartea	75
	8. Bere prudenzia. . . .	77
XXXIV.	Nola Jaungoicoac arguitu zuan San Ignacio-ren eriotza eta aguertu zuan Ceruan daucan Gloria onen bitartez eguin zituan milagroakin, zeintzuac daude atereac Canonizazioco Buldatie. . . . .	79

## OSAGARRIA.

1.º	<i>Izribaldia</i> .—Jesus-en Lagundico personen eta bizimoduaren azalduera. . . . .	83
2.º	<i>Izribaldia</i> .—Aita San Inazioren Bera-tzi-urrena. . . . .	97
3.º	<i>Izribaldia</i> .—San Inazio Loyola-coaren Cantateguichoa.	
	Graciaren garaimena San Inaziogan.	106
	San Inazioren zeruratzeari. . . . .	109
	Loyolaco Aita San Inazio Cantauritarren bitartecoa. . . . .	111
	Aita San Inaziori erreguzco cantachoa.	115
	San Inazioren ilbill-neurria edo marchea	117
	San Inazioren marcha berria. . . . .	120





Liburu-guille beraren echean daude  
salgai DEBOCIOZCO BIZITZARACO SARRERA,  
San Francisco Salesco-ac aterea zuanetic,  
Aita Fray José Cruz Echeberriac Zarauzco  
Misioneruae euzkeraz jarria.

PESETA BANA.

CERUCO ARGUIYA edo JONDO PENSATU  
BERRIYA, ! Benetan eta arretaz Jaungoicoa-  
gana biurtu nai duten cristauentzat eter-  
nidadeco egui edo gaucen gañean pensa  
bidea, edo ondo consideratzeco modua,  
ejemplo egokiakin,

ERREAL BI ETA ERDIAN.

ASIS-CO LORIA edo FRANCISCO SANTU  
AUNDIYAREN eta POBRIEN AITA-LENAREN  
BICITZA, bere seme Beobide-co Aita  
Fr. Crispinec iscribitua.

BI PESETAN.

Eta gañera beste euskerazco eta erde-  
razco escu-liburu asco  
chit merke.